



“EGIA”  
SORTA



EVSKALERI'KO



LEEN-GIZONA

BARANDIARAN'DAR J.M.



Lisez nos livres  
IRAKURĪ GURE IDAZTIAK  
Lea Vd. nuestros libros

## "EGIA SORTA"

"ZABALKUNDE"AREN ERANTSKIA  
JAKINGAIK ANTZEGAIK ELERTI.



EĪAREN JAKINTZARAKO  
LIBURU SORTA

Beñat Idaztiak  
Legazpi, 5  
DONOSTIA

*Manuscrito 1952-XI-*

«EGIA SORTA»

ZABALKUNDEA'REN EUSKAL-ERANTSKIA

I geya

1934



ITXAROPENA ARGITALDARIA.-ZARAUTZ

M- 11503

R- 37042

17996

EUSKALERI'KO  
LEEN-GIZONA

(Eusko-lurétan lenengo izan ziran gi-  
zonen edesti laburá)

Barandiaran'dar Joseba Mikel'ek



EUSKALTZALEAK'EN

ARDURAPEAN

BEÑAT IDAZTIAK

Argitaldaria

Legazpi, 5'gna

DONOSTIA'N



## AURKIBIDEA

---

|  | Oñaldea |
|--|---------|
| Datortzkigun idaztiak.....   | 5       |
| Saíera.....  | 7       |
| I.—Euskaleñi'ko lenen-lenengo gizonak. Leen-paleolitos-aroa.....           | 11      |
| II.—Geroztiko Paleolitos-aroa Pranko-Kantauritar Eñia eta euskaldunak..... | 21      |
| III.—Euskaleñi'ko goien-paleolitos-aroa.....                               | 27      |
| IV.—Epipaleolitos eta Neolitos-garaiak.....                                | 53      |
| V.—Eneolitos-burdinori eta burni-aldiak.....                               | 61      |
| VI.—Eñomatze-aldia.....  | 93      |
| Eusko-edestiauñe'ko gai darabilkiten idaztiak.....                         | 105     |
| Egilearen beste idazti batzuek.....  | 108     |
| Ikusgaiak.....   | 109     |

## «Egia Sorta»

1.—*Euskaleri'ko leen-gizona*. Barandiaran'dar Joseba Mikel'ek. Saneuñia: 4,50 lrko.

### DATORTZKIGUN IDAZTIAK:

*Euskal-Edestia*. Estornes Lasa'tar Beñat'ek. Umiei eusko-edestia erakusteko lenengo liburua.

*Garoa*. Agiré'tar Domeka'k. Irakurgaia.

*Santxo Garzes*. Kanpion'dar Artur'ek. Zinkunegi'k euskeratuta.

*Lañalde'ko Lorea*. Kanpion'dar Artur'ek. Agiré'tar Domeka'k euskeratuta.

*Nonni ta Manni*. Islandiar mutiko biren gertaldiak. Doitxeratik euskeratutako irakurgaia. Muxika'tar Palgida S. I. euskeratzalea. Jon Stewenson S. I. egilea.



---

*Baita ari gera idazti berezi batzuek euskeratzen, eta beste batzuek, beñero argitaratzeko, eratzen ere, batik-bat euskal-eredu diran Axular, Etxeberri'tar Joanes, Oienart' D'Etxepare, Etxeberri'tar P., Lañamendi, eta Mendiburu, renak eta beste.*





SAÑERA



Euskaldunak beren jatorri eta bizikera oso bereziak dituzte.

Oregatik nunbait Euskaleña, beste erri guztien artean, garbi nabarmendua beti azaltzen zaigu.

Berezitasun orien sustrai eta kimuak antziñ-antziñatik datozkigu, urundik dakarkigute beren asiera.

Kimu eta sustrai oiek, denak alkarturik, egin eta eraldu dute euskal-edesti guztia.

Ori apur oetan edesti orien lenengo aroak azaldu nai nituzke; Jesukristoren sinismena gure alderdian sortu baño lenagokoak, alegia.

Bañan antziñako idaztirik izan ezik, Arkeoloji eta Etnografia'ri eskatu bear izan dizkiegu lantxo onetan darabiltzkigun oñañirik bikañenak. Ora or gure lantegia.

Oraindaño, naiz euskal-bizikera, naiz aberiaren oroia zopizartzen eta azterkatzen jardun degu.

Eta egin ditugun agerpenak, gaurko eguneko edestiaren egikeraz moldatzen ere zerbait saiatu

gera. Ortatik euskal-edestia malaz-mala eraldua agertu zaigu. Eta mala oetako batzuek Pirene-mendietan beren sortze eta auferapenak, Jesukristo baño lenagoko aroetan, izan zituzten.

Gure edesti-auñeak egiaz lanbide sumakaitzak ba-ditu. Ori ez da añitzekoa: jakintza au oraindik oraingoa bait-da.

Ala ere asmakizun batzuei beren erabakia eman diegu: eta ustez betiko.

Beste jakintzaetan gertatu oi dan bezela, emen ere gauza guztiak ez dira lau eta agiriak.

Gure iritzi batzuek bada-ezpadakoak dira. Oraingoz geren baiezkoa opa izan diegu, oien bidez azken-erabakiak iritxiko ditugun ustean.

Zenbait tokitan irakurleari garbi adierazi diogu zertzuk diran sendo eta trinko dauden gauzak eta zertzuk koloka. Eta darabiltzkigun itzak berak darakuste askotan norañokoa dan gure ziñespena.



I

**EUSKALERÍ'KO LENEN-LENENGO GIZONAK**

**LEEN-PALEOLITOS-AROA**



Lenagoko gizonak idazten ez zekiten, eta ezin beren gertakari eta bizikerak, orain bezela, idaztietan aipatu.

Auxe bera gerta zan Euskaleña'n lenengotik asi eta eñomatañen zabal-aldirarte. Bitarte oni «Edesti-auñea» deitzen diogu.

Edesti-auñea lau garaitan banakatu edo urgali gantzake: *Paleolitos* edo añ-landu garaia; *Mesolitos* edo *Epipaleolitos*-garaia; *Neolitos* edo arlaban-garaia; eta azkenik *Menasta-garaia*.

Paleolitos-garaia geologariak Pleistokenos deitu oi dioten ludi-aroaren azkenaldean igaro zan. Garai artan egurastiak aldaketa izugariak egin zituan (beroaldiak eta otzaldiak, alegia); ibar eta aitzbitarte asko sakondu ziran; eta gaur oraindik zenbait ibar eta sakanetan ageri diran ondartzia eta arikan dirik mardulenak, ujol aundien indañez, orduan bildu ziran. Euskaleñi'ko aretza eta arikanadi asko aldi artan pilotuak dira, batik-bait Gazteiz, Miranda, Tudela eta Bayona'ingurukoak.





Paleolitos-garaiak bi maña ditu: *Leen-paleolitos-aroa* eta *Goroztiko-paleolitos-aroa*. Leen-paleolitos-aroako aldiak *Cheles-auñekoa*, *Cheleskoa*, *Acheulkoa* eta *Moustierkoa* dira. Lenengo iru aldi oietako gizonen




1 irudia.-Chelesauñe'ko edo Chaloss'tar langaiak: *a*, irualboko pikotxa; *b*, igeikia; *c*, añizko karakalua (Passemard'ek argitaratuak)

aztarna garbirik emen oraindano ez degu arkitu. Bañan aldi aietan ere Euskaleña'n gizonak bizi izan ziranik ezin gentzake ukatu. Guretik uruti gabe (La Chalosse, Puente Viego eta Toñalba'n) azaldu diran kondar batzuek ala erakusten digute beintzat (1, 2 eta 3 i.).

Laugañen aldia *Moustier'koa* da. Eta aldi ontako langintzaen agiriak Olha'ko añilorpe batean, Istu-


ritz'en eta Zuñiga'n arkitu dira. Agiri oek añi gogofezko tresna batzuek (otaañi eta oloañizkoak batikbat) izan oi dira. Zakarxamar tajutuak. Eta beren tankeraz, aizkorak, mañuxkak, malerak eta beste olako zerbait dirana garbi ezagun dute (4, 5, 6, 7, 8 eta 9 i.). Tresna oek eta beren lur-mañan arkitu izan diran abelaztarnak, orduko gizonen biziera

eizetikakoa zala ondo adirazten digute. Aro artan emen mendiak-zear zebiltzan aberekiak auntzaidak (auntzak eta basauntzak batik-bat), eta abelgoñi, zaldi, aragizale (leiza-artza eta leiza-katua beintzat) eta beste olakoak ziran. *Rangifer tarandus* eta *Rhi-*



2 irudia.-Ara emen, añez eta egaletik, nolakoa dirudin Montsoué'n bilatu izan zan aldebiko esku-aizkora batek (Passe-mard'ek argitaratua)

*noceros tichorbinus* (adarbakara) ere *Moustier-garaiaren* azkenaldean ementxe ziran. Orduan nunbait giro otza bide zan alderdi oetan: abere oiek beintzat egurasti otzekoak dira. Oregatik gizonak leize eta arzuloetan autatu zituzten beren bizilekuak: toki aietan giro epelagoa eta atsegingarriagoa izan oi bait-da.




3 irudia.-Toñalba'ko chelestar esku-aizkora. Auñez eta egaletik



4 irudia.-Mugeñe'ko kuartzita mutua (Passemard'ek arg.)


Leen-paleolitos aroak iraun zuan bitartean, Europa' ko luřetan bi giza-enda, bata bestearen ondotik, azi eta zabaldu ziran. Lenengoari *Homo heidelbergensis* deitu diote jakintsuak. Gizon arek matrail-ezur sendoa, eta okotz mutur-gabea zituan. *Homo primi-*




5 irudia.-Olha'ko mustiertar esku-aizkora. Añez eta egaletik (Passemerd'ek arg.)

*genius* edo *neandertalensis* zan bigařena. Bekokia atzerantz zapaldua zuan eta bekañ-ezurak beřiz oso irtenak. Isturitz'en ere giza-enda onen matrail-ezur bat arkitu zan. Leiza-artzaren eta rinokeros edo adarbakařaren ezur batzuek zeuzkan bere inguruan <sup>(1)</sup>. Begira 10 i.

(<sup>1</sup>) Beři au H. Breuil'ek argitaratu zuan, M. Boule'k dionez (*Les Hommes Fossiles*, 184 or., Paris, 1923).





6 irudia.-Olha'ko mustiertar aizkora. Auñez eta egaletik  
(Passemard'ek arg.)



7 irudia.-Musti-  
ertar gezi-mutu-  
rak: a, Olha'koa;  
b, Isturitz'koa  
(Passermard'ek  
arg.)



8 irudia.-Isturitz'ko  
mustiertar zulakaitza  
(Passemaid'ek arg.)



9 irudia.-Mustiertar malera edo karakalauak: *a*,  
Olha'koa; *b*, Isturitz'koa (Passemaid'ek arg.)

II

GEROZTIKO PALEOLITOS- AROA

PRANKO-KANTaurITAR

Eria eta Euskaldunak





Geroztiko Paleolitos-aroa da edesti auferko bigaeren mala.

Eta aro onetako edesti-gaiak lengo aldikoak baño ugariago arkitzen dira Euskaleña'n. Aro oñek iru aldi ditu: *Aurignac*, *Solutré* eta *Madeleine* aldiak. *Aurignac*-aldiko aztarnak Santimamiñe'n, Bolinkoba'n (?) eta Isturitz'en ba-dira. *Solutré*-aldikoak beñiz Santimamiñe'n, Bolinkoba'n, Isturitz'en eta Ermitia'n. Eta azkenik, *Madeleine*-aldikoak galanki azaldu dira orain aipatu ditugun toki oietan, eta gañera Aitzbitarte'n, Urtiaga'n, Lumentxa'n, Armiña'n, Balzola'n eta Lapeña'n.

\* \* \*

Euskaldunen edesti-auferan dan garairik izendatuenetako bat Goien- edo Geroztiko-paleolitos-aroa deritzaiona da.

Eta ala bear ere. Gauzak itxura dutenez, orduan emen zebiltzen gizonak euskaldun jatorrak

bait-ziran. ¿Nola, ordea, jakin ote-liteke ori? Gaurko euskaldunok daukagun lur-zati au aldi aieta-ko pranko-kantauritar eñiaren erdi-aldeko lur-erlo bat zan. Alderdi onetako gizonak bizikera edo gogo-lantze (1) oso berezi eta bakañeko bat zera-bilten. Bereztasun au, aldaketa batzuek gorabera, geroztik ere ondo zaindu zuten, sartaldeko Pirene inguruetan beintzat, alik eta gerka eta eñomatañ edeslariak euskaldunen (vasconum) izena aipatzen asi ziran arte. Oregatik Bosch Gimpera, arkeologari argiak, uraidagaraiko pirenetañak euskalduntzat emanda gero, onela dio: «Ezin ulertu gentzake pirenetañak, dauden tokietan, nola arkitu litezkean, baldin beren jatoñia antziñako paleolitos-aroetan an bertan bizi izan ziranetatik ez ba-dakarte» (2).

Euskaleñi'ko gizonen bizikera eta gogo-lantzea Goien-paleolitos-aroaren asieratik gaurdaño oso berezi eta bakañekoa izan da, eta bitarte onetan eñi aldaketarik emen ezagutu ez dala, argi

---

(1) Eñi bakoitzak, bere bizikeran, lanbide eta asmakizun asko arkitzen ditu. Eta asmakizun eta lanbide beañekoai beren iritzi eta erabakiak eman ere bai. Iritzi eta erabaki oiei deitzen diegu *gogo-lantzea*, gogoz eta adimenez egokituak eta landuak diralako. Abereak ez dute gogo-lantzerik; gizonak, bai. Bizibidea edo jana lortzeko era, langintza edo laneko tresnak, jakintza, ertiak, gizon eta eñi-batzak, uskurtz edo erlijioa: ofa eñiak beren lanbide beañekoai eman oi dizkiten erabakiak. Oiek dira *gogo-lantzearen* aleak. Danen artean egiten dute *gogo-lantzea*.

(2) *Los pueblos primitivos de España. Revista de Occidente*, XXVI, 184 (VIII-1925).

adierazten digu Arkeolojiak. Eta ori ola ba-da, naiz Goien-paleolitos-aldian emen zebiltzan eiztariak, naiz Menastagaraiko artzaiak, danak euskaldunak izan ziran. Goien-paleolitos'ko giza-ezueñik oraindaño ez da Euskalería'n arkitu. Bai ordea Uraida garaikoak, eta, Arantzadi'tar T. jakintsuak dionez, oraingo euskaldunen giza-ezueñen erakoak dira. Nunbait euskaldunak izan orduko gizonak ere. Au bera erakusten digu gaurko Eusko-etnografia'k ere. Oraingo euskaldunen gogo-lantze nastu onetako zati batzuek edesti-auñetik datozkigu, edesti-auñetikako aztarnak dira. Beraz esan liteke baita gure gogo-lantzeak ere emen bertako edesti-auñean bere jatoría izan zuala.

Goien-paleolitos'kotik asi eta gaurdaño Euskalería'n euskaldunak bizi izan dirana uste dezakegu beraz. Eta çzenbat urte ote dira Goien-paleolitos'ko ori igaro zala? Ez da erantzuten eñez. Alaz ere, gauza oeri aldan egokiena neuñiak artuta, esan gentzake Goien-paleolitos'ko oñen azken-aldetik (Madelaine'kotik alegia) asita orainarte 14.000 urte igaroak dirala <sup>(1)</sup>. O. Menghin'ek dionez, beñiz, 7.000 urte (agian 6.000) bakañik igaro dira.

Noiz eta nondik sortu ote ziran euskaldunak

---

<sup>(1)</sup> Barandiaran'dar J. M.: *Breve historia del hombre primitivo*, 17-18 (Vitoria, 1933).

Europa'ko bazter onetara? Ez dakigu. Gai onetan iritzi asko erabili izan dira; baña gauzari egiaz igartzeko lain indar eta agiririk izan ez dute. Oregatik, nere ustez, euskaldunen edesti-aurea Goienpaleolitos'kotik asten da, *Aurignac*'kotik noskiro. Euskaldunen aztarnarik antziñagokoenak, ordutik datoztela deritzot.



III

EUSKALERÍ'KO GOIEN-PALEOLITOS-AROA




Goien-paleolitos eta geroztiko aroetan Europa'ko S. W. aldean bi erimoltzo azaltzen zaizkigu: *pranko-kantauritarena* (euskaldunena) eta *kapsatarra*.

Lenengoa, kantauri-itxasaldeko luretan bizi zan, Asturias'tik asi eta Dordogne eta Ariège deritzaien ibaietaraño. Erdi-inguruan gure Euskaleria besarkatzen zuan. Eta bere malak *Aurignac-*, *Solutré-* eta *Madeleine-*aldiak dira. Emen ezik, Europa'ko sartalde guztian ere oiek dira Goien-paleolitos'ko malak. Aldi aietako ezur eta ańizko tresna eta langaiak era askotakoak ziran. Batik-bat, ordea, ertigintza zeguan guztiz ańrendua: ańi-moldakera, eta ildo eta margo-apainkera beintzat. Eginkizun oietan orduko gizonak orobat azkar eta trebeak ziran.

Kapsa'tar gogo-lantzea Aprika'tik sortua zan. *Mediterraneum* edo Luńarte'ko itxaso-inguruan asko bańeatu zan: Españia n (S. eta E. aldean), Sizilia'n, Italia'n, Aprika'ren ipańaldean, Ejipto'n, Palestina'n eta Penizia'n. Ez zuan, ordea, erorik Euskaleri'raño luzatu. Kapsa'taren langairik berezienak suarizko

arkaxkar edo mikrolitoak ziran, geienak leño-zuzenezko tankeran egokituak. Beren langintza eta erti-lanak beste kutsu eta jokera bat zuten, eta pranko-kantauritañenak baño zeken eta tximelagoak ziran.

**Aurignac-aldia.**-Eusko-aurignac'tañen artean añizko langai asko erabili oi zan. Ertzetan koskaz apain-




11 irudia.-Izturitz'ko auriñactar mañuxkak (Passegard'ek arg.).

dutako ao edo igeki edeñak zituzten; baita zula-kaitz mutur-melañak ere eta era askotako mañuzak, ikutu-luzez ederki tajutuak; ezten bizkar-koskatuak (Gravette'koak); zanpagaiak eta jotzale edo mañuak; erdoigoñizko margo-gaiak, igurtziz erabiliaz meatutako burdin-artxabalak, eta abañ. Begira oetako batzuen irudiai (11, 12, 13, 14, 15 eta 16).

Ezur-langintzako tresnetan aipagañiak dira ezten-pitzatuak, ezten-burudunak, makil-zulatuak,





12 (a), ta 13 (b), irudiak. - Isturitz'ko igeiki eta gezi murtur bizkarzanpatuak (Passe-mard'ek arg.).

batik-bat Lapeña'ko arzuloan dauden irudiak (19 i.) eta Isturitz'ko artxabal mairez-tuak. Aurignac-aldiko langintzaen aztarnak oraindano Euskaleñi'ko toki bitan bakarrik agertu zaizkigu: Isturitz'en eta Santimamiñe'n.

**Solutré-aldia.**—Garai onetan erabili oi ziran arizko


arpiko edo zulakaitz murtur-txabalak, zenbait txintxilikaio (aunzkideen eta hyenaen ortzakin egiñak), maskor zulatuak, auntskide-ortzaren antzeko bolizko gauza bat, eizeko ezur-taia koskatuak, iruzulodun egazti-ezura (txilibituen bat noski), eta abar (17, eta 18 i.).

Ordutikoak dira Paleolitos-garaian sortu ziran erti-lan batzuek ere,



14 irudia. - Isturitz'ko auriñactar zulakaitzak (Passe-mard)

tresna eta izkiluak aurignac'taŕen antzekoak ziran. Gauza oietako batzuek, ordea, ez zuten len bezela ertza bakaŕik koskatua, baita gain-azpiak ere. Ofela egiñak ziran azkon-mutuŕak: batzuek ere-ñotz edo eŕamu-ostoaren erakoak, besteak saratsa-renak bezelakoak eta beste batzuek beŕiz akats eta txurtendunak (20 i.).




15 (I) eta 16 (II) irudiak.-Anglet'ko auriñactar zulakaitz eta maŕuxkak (Passemard)

Ezuŕezko azagai-mutuŕak ere egiten ziran: biribilak eta ondotik mizto batez zirituak. Oetako batzuek edenarentzat ildotxo bat ere ba-zuten. Zardaiak, naiz biribilak, naiz erdi-biribilak; eztenak, eiz-koskaz maŕeztutako ezuŕak, makil zulatuak,

artzi, jostofatz, zulodun-txiñika eta beste, nun nai azaltzen dira garai ontako aztarna-tokietan (21 i.).

Aro artan, azkenaldean beintzat, erti-lan ede-  
rak egiten ziran Isturitz'en (ármoldakera eta mañez-  
apainkera), eta geroztiko Madeleine-garaian ere ala  
jañain zuten. Gauza oien aldia erabakitzekeo aldin  
aundikoak dira Isturitz'ko labañi batean dauden




17 irudia.-Isturitz'ko auriñactar ezur-  
langintza

ármoldakerak: Goien-solutré garaiko lurmaña batek estaliak arkitu bait-ziran; beraz antziñagokoak izan.

Solutré - garaiko eusko - langintzaen aztarnak Santimamiñe'n, Bolinkoba'n, Ermitia'n eta Isturitz' en arkitu izan dira.


**Madeleine-aldia.**—Garai onetan ari- eta ezurlan-  
gintza oso ugariak eta era askotakoak ziran Euska-  
di'n. Aiztoaren antzeko sua-ri-auak, aztamakil-mu-



18 irudia.-Isturitz'ko egazti-ezur iru-  
zuloduna (txilibitua?) eta rengifer-  
adar zulatua (makil zuloduna?).  
(Passemar'd'ek arg.)

tu' edo igeki luzeak (batzuek ertzetan koskatuak,  
besteak bizkar-zanpatuak), ze'ak, tastañ, zulakaitz,  
ma'uxka, zanpagai eta jotzale, danak a'rizkoak eta,  
gutxi gora-bera, au'eko aldian ori ziran bezelakoak

arkitzen dira emen ere (22 eta 23 i.). Margo-gai asko erabiltzen zan garai onetan, argoñitik eta lurgoñitik atereak batez ere: Madeleine-aldiko aztar-nak ala adierazten digute beintzat. Oietako batzuek zerbaiten eginbidea izan dutena ezagun dute: erabili az meaturik daude-ta. Afizko katiluak




19 irudia.-Auriñactar ertia. Lapeña'ko (Kañantza-Bizkaya) arzulo-ormaetan dauden artza eta bison-atzealdea. Ildoz maraztuak daude.

ere ba'ziran. Eta ari-lora kaxkañak ez gutxi: kutunak izan bear zuten.

Adarrez edo ezurrez egindako azagai-mutur askok oña ozpikotua zuten: beste batzuek beñiz mizto biko edo bakañekoa. Oñelako eztenak ere ba-ziran: naiz edenarentzat ildoarekin, naiz bage; gañera jostoñatzak, añankazi biribilak (ortz-eñenka-


da bat edo bikin), makil-zulatuak, eta abar (24 ta 25 i.) Era askotako txintxilikaioak: zaldi-ortzak, oreinle-  
tagiñak, mangoliñotxoak (*littorina obtusata*), eta abar.



20 irudia. - Solutretaren ari-langintza: 1, ereñotz-ostoaren antzeko azkon-mutuña (Isturitz); 2, sarats-ostoaren antzeko azkon-mutuña (Isturitz); 3, azkon-mutuñ akatsduna (Ermitia); 4, mañuxka (Ermitia); 5 eta 6, zulakaitzak (Ermitia); 7, ertz-ikutudun igekia (Ermitia).

Santimamiñe'ko labarrietan dauden margo eta mañez-apainkerak aldi onetakoak dira (26 i.). Baita toki artan eta Lumentxa'n, Urtiaga'n, Bolinkoba'n,


Aitzbitarte'n eta Izturitz'en maiz arkitu izan diran adarrezko eta ezurrezko langai, ańizko zanpagai, argońitxabal eta beste ańizko tresna edo esku-gauzetako erti-lanak ere (27, 28, 29, 29 bis eta 30 i.).



21 irudia.-Solutretar ezur-langintza; 1, bi muturereko ezten txabala (Ermitia); 2, alde batez miztatutako azagaimuturra (Isturitz); 3, eizkoskadun ezurra (Isturitz); 4 jostoratza (Ermitia)

Orain aipatu ditugun toki oiezaz gañera Baltzola (Dima'n), Armiña (Lekeitio'n) eta Ermitia'ko artzuloak ere Madeleine-aldiko langintzaen aztarna asko dute.

Goien-paleolitos-aroko bizkera. — Eusko-edestiau-  
feko aztarna-tokietan bilatu izan ditugun abere-  
ezufak naikoa adierazten digute zer abere-mueta




22 irudia.-Ermitia'ko madeleinetar ari-langintza: 1, igekia; 2, mañuxka; 3 eta 4, zulakaitzak; 5, 6, 7, 8 eta 9, ertz-ikutudun igekiak; 10 eta 11, zeñak; 12, igeki makurá; 13, loro-mokoa.

zebiltzan Goien-paleolitos aroan. Oietako aurene-  
nak zezen, basa-bei, bison, zaldi, rangifer, oreiñ,




basauntz, auntz, ile dun elephas (mamut), rhinokeros edo adarbakar (*Rh. tichorhirus*), azari, otso, basurde, artz, legoi, hyaena eta leize-artza ziran. Batzu-



23 irudia.-Baltzola'ko madeleine-tar ari-langintza: *I*, mañuxkak; *II*, azkon-mutuñak eta zulakaitza; *III*, zanpagaia

ek edozein egurastitan bizi leizkenak dira. Beste batzuek ez: rangifer, ile dun elephas eta ile dun

adarkakarak (*Rhinoceros tichorhinus*) egurasti otza gura dute. Eta orduan egiaz egurasti otza zana, abere oiek ezik, orduko Alpe eta Pirene-mendietan zerieten elur-orreatuen azken-nardak ere garbi adierazten digute: oraingoak baño askoz berago bait-




24 Irudia.-Madeleinetar ezur-langintza: 1. eta 2, Ermitia'ko eztenak; 3, Ermitia'ko gezi-mutur, alde batez miztotua; 4, Isturitz'ko gezi-mutur, alde bietatik miztotua; 5, Isturitz'ko zigortxo erdi-biribila; 6, zigortxo bi elkar-erantsiak; 7, Isturitz'ko gezi-mutur sardekatua; 8 eta 9, Isturitz'ko aran-kaziak; 10, Ermitia'ko jostofatza.

daude. Beraz Eusko-pirenetako gizonak biziro egurasti otz eta gordiñean bizi ziran.

*Bizibidea.*-Len aipatu ditugun edestiauñeko azteñen-tokietan jan-ondakin ugari arkitu izan da.

Ondakin oek adierazten digutenez, orduko euskaldunak beren bizigaña eizetik eta aiantzatik lortzen zuten. Oraindik nekazaritza eta arantza ez ziran beraz azaldu. Santimamiñe eta Lumentxa'ko magurio-azal pilak, Santimamiñe'ko basauntz-adar mordoak eta Isturitz, Aizpitarte, Ermitia, Urtiaga, Bolinkoba eta beste tokietako abere ezurak aldi artako eiza eta aiantza gogor eta luzarokoak izan




25 irudia.-Isturitz'ko madeleineta makil zulodunak (Passemaid)

zirala ondo darakuste. Eiz eta aiaiai jañaitzeko etxez edo bizi-tokiz (urutira ez ba-zan ere) aldatu beara sañitan izaten zuten euskaldun aiek. Zenbait abere arapatzeko eiztari askok alkar-artzen zuten. Danen artean eiza, uxatuaz eta aienatuaz, toki sakon eta estuetara zuzentzen zuten, eta bertan izkiluz edo arika galdu oi zuten. Eiz-bide au Euskaleñi'ko

basauritañak oraindik otsotan eta basurdetan, aztu gabe, darabilkite (31 i.).

Eizetikako aragia, magurioak (batez ere itxas-aldean), arñaiak eta aleak (ur, intxaur eta kurkuxak) ziran orduko janaririk obeenak.




26 irudia.-Santimamiñe'ko madeleineta orma-  
mañazkintzak. 1, beoña; 2, bisona; 3, artza;  
4, orein-burua.

Sua janariak gertutzeko egiten zan. Baita gauez pistiak izutzeko ere, oraindik emengo eñi batzuetan oi dan bezela.


Janariak bear bezela berotu eta samurtzeko, oraindño eusko-baztañetan, lur- edo menasta-ontzirik ez danean, iñoiz ikusten degun egoskera

berezi bat erabiltzen zan. Abelgoñi- eta beor-zaiak jo-bat eta jo-bestera ibili bear izaten dute mendietan, eta lur-ontziak ara ta onera erabiltzeko ez izan



27 irudia.-Isturitz'ko tresna-ertia: 1, katukia; 2, zaldia; 3, zaldi-burua (Passemard)

onak, eta ořegatik adařezkoak (kutxařoak) zořoan eramán oi dituzte. Esnea kutxařo oietan egosten dute; bařa ez kutxařoa bera sugaņean ipinita, sutan goritutako arkoskořak bertan sartuaz baizik. Era ortan artzai batzuek ere zurezko kaiku eta apatze-tan esnea egosten dute. Paleolitos-garaiko euskal-dunak ere egoskera berbera izan bear, mangoliņo




29 irudia.-Aři batean ildotxoř mařez-tutako erbi irudia (Isturitz'ko arzu-loa'n) (Passemard'ek arg.)

eta littorinai aragia kentzeko; ez bait-zan arteraņo lur- eta menasta-ontzirik iņon sortu. Magurio oiei aragia kentzeko, ordea azala ausi edo sutan eře ezik, egosi egin bear. Gure edesti-auřeko aztarna-tokie-tan beřiz magurio-azalak osorik eta eřeuna gaberik daude. Ořegatik uste degu bada magurioak ařigori-tuaz urtan egosten zirala orduan.

Bizitokiak.-Arlandu-garaiko euskaldunak geiennetan arzulo eta añilorpeetan bizi izaten ziran. Toki aietan ez zuten ainbat otz, ezta pisti izugarrien bildurik ere. An utzi zizkiguten beren lan- eta ertigin-tzaen aztarnak (32 i.).

Sutokia, orain arte eusko-baseñi batzuetan ikusi izan dan bezela, prote baten eran luñean sakon-



29 bis irudia.-Añi batean ildotxoaz marzertutako orein-burua. Aitzbitarte'ko (Eñenderi) beko arzuloan 1917 gañen urtean Breuil apaiz jakintsuak bilatu zuan.

dua izaten zan. Eta arzulo-sañeran edo eskaratzean egon oi zan; egun-argia sartzeko eta aizea beritze-ko toki arek egokitasun ohea bait-zuan.

Aldi aietako gizonen bizitoki ziran arzulo eta arpe asko ibai inguruetan daude, batez ere inguru-maiak eta bertan zebilen eiz guztia begiztatzeko toki gaintxo egokienetan.

*Jazkera.*-Abere-nañuz egindako soñekoak zera-biltzkiten aldi artako euskaldunak. Ordutikakoa izan bear du, iñolaz ere, zenbait artzaien artean oraindaño bañunda degun bezela, ardinañuzko jazkaiak erabiltzeko oitura. Eta ezuñezko jostoañtzak ere joste lanen eta jantzien ezaupidea darakuskigute.




30 irudia.-Isturitz'ko ezur batek dauzkan giza-antzeko irudiak (René de Saint-Périer'ek arg.)

Maskor zulatuak, suañizko añilorak, abere-ortz zulodunak eta oñelako beste zenbait gauza txiki txintxilikaioñtzat erabiltzen ziran: ez ziran ordea apain-gauzak, kutunak baño. Euskaldunen artean gaurdaño ikusi izan dira oñelako kutunak, batez ere añilorak eta zaldi eta basurde-ortzak (33 i.). Soñaren apaingañiak margoz osatzen ziran. Oñetarako izan bear zuten Lumentxa'n, Urtiaga'n eta Isturitz'en arkitu izan diran argoñi eta lurgoñizko



tresnatxo batzuek: danak, erabiliāz labandu eta meatuak zeuden. Orelako menasta darabilkite oraindik ere Urbasa'ko artzaiak beren ardiak margozteko.



31 irudia.-Gibijo'ko (Kuartango - Araba) otsozuloa. Ormak (P) 300 n. luze, 2,50 gorantz eta 0,80 zabal dira. Biak alderatzen diran tokian 6 n. luze, 5 zabal eta 4 berantz neurtzen dituan zulo bat dago. Ikuñak (U) dauden tokietan itxaron oi dute eiztari batzuek, otsoa inguratzen danean, atzetik zauritzeko.

*Langintza.*-Langai eta izkiluak, naiz añizkoak eta naiz ezur, adar eta eguñezkoak ziran. Gai onetan, ordea, ez degu, len esanaz gañera, beste ezer esan beañik.

*Ertia*.—Arlandu-garaiko eiztariak, batik-bat Madeleine-aldikoak, erti izapentsu eta aundikitu bat piztu, ugaldu eta garatu zuten, Europa'ko sartalde-inguruetan beintzat. Batez ere Prantziko SW. aldean eta sartaldeko Pirene-mendietan, erti-lan ikusgarriak eta, beren izatez naiz egikeraz, txit bereziak egiten ziran. Agerkunde oien bitartez, alderdi aietan bizi ziran eñiak—pranko-kantauritañak alegia—bes-



33 irudia.—Arlandugaraiko kutunak: 1, Ermitia'ko madeleinetar zaldi-ortza; 2, oreinletagiña; 3, turritella (Bolinkoba)

te guztien artean oso bakañak eta margo berezikoak azaltzen zaizkigu. Ez aztu Euskaleria pranko-kantauritar luraldearen erdi inguruan dagola.

Erti-lan oetatik ikusgarrienak margoz eta eztezez mañestuak dira (batzuek beintzat), eta oraindik arpe askotako labarietan ageri dira; besteak beñiz añizko, naiz ezurézko edo adañezko esku-gauzetan

moldatuak daude. Geienak abere irudiak izan oi dira, batik-bat mamut, rhinokeros, rangifer, oreñ, auntz, basa-zezen (bison), artz, basurde, zaldi, antilope, phoka eta abar. Leño utsak, esku-erāñuak eta giza-irudi-antzeko mañezlanak ere ba'dira. Gizona bera, ordea, ez zuten sekulan garbi mañeztutzen.

Erti onen agerpen arigañienak Altamira'ko arzu-loan daude. Baño gaurko eusko-luñalde onetan ere ba'dira, Santimamiñe, Lapeña, Lumentxa, Urtiaga, Aitzbitarte, Bolinkoba eta Isturitz'ko arpeetan beñepein (25, 26, 27, 28, 29, 29 bis eta 30 i.).

*Uskurtza.*-Orain aipatu ditugun erti-lan oiek zertarako ziran azaldu nairik, iritzi bat baño geiago agertu dizkigute edesti-auñelariak. Geienak diotenez, lan oiek eiztariai laguntza eta adur ona lortzeko kutun batzuek baño ez emen ziran. Dr. Obermaier jakintsuak, pranko-kantauritañen mañezturaezaz onela dio: «Españi'ren ipañaldean eta Prantzi'ren garaikoaldean arkitzen diran arpetako irudiak aztikerizko gogamen eta asmoetan dauzkate beren sustrai eta jañabideak; sekulako ilunpean, urutiko tokietan eta bazter ibilkaitzetan, erakusgañi ezin litezkean lekuetan egiñak bait-daude geienetan... Edozeñetara ere, oraindik zenbait leenantzeko eritan oitura dan bezela, «eizeko aztigauzak» izan bear dute. Onelakoen iritiz, abere-irudia (gogoa,

berak diotenez) aztikeriz menperatu ezkeru, bereala menperatu lezake eiztariak abere berbera ere... Onezaz gañera, naiz norbera zaintzeko naiz abereak ugaltzeko aztikeriak bein baño geiagotan erabili oi dira eñi oietan; baita bear-bada abere edo *totem*-agurtzak ere» (1).

«Giza-antzeko mañesturak beñiz, Obermaier'ek berak dionez, ez da uste izan bear eizlanerako zatarrantzian dauden eiztarien irudi batzuek dirala; obeto esan gantzake oraindik zenbait basati-arteko aztiak erabili oi dituzten mozoño jantzien antza dutela, edo sasi-gizarteetako lagunak dirudietela. Batzuetan baita deabru-agurtzelanetan dabiltzanen irudiak dirala ere esan liteke» (2).

Eusko-gogolantzearen ikutu edo oarpenak Paleolitos-garaitik gaurdaño iritxi zaizkigun ezkeru, ez da añitzekoa oien artean uskurtz asteñen batzuek oraindik arkitzea. Gai onetan zer-ikusia duten gauzak ba'dira orain ere Euskaleña'n.

Zenbait zaldi, zezen, txalgoñi, aari, sai eta sugaitxurako izaki edo jainkoizunak arzulo ilun eta leizaetan bizi diralazko sinismenak oso zabalduak daude gure artean, eta oek dira eusko-mitologiak

---

(1) *El hombre prehistórico y los orígenes de la Humanidad*, 103-104 or. Madrid, 1932.—Adreri bakoitzak bere jatoña abere mueta batetik dakafela zenbait leñeritan uste izaten dute. Ofelako abereari *totem* deitzen zaio. Eta bera agurtu eta berari begiramen ona beti azaldu oi dio bere adreriak.

(2) *Ibid*, 105 or.

darabiltzkian lakarik mardulenak. Oiezaz gañera, beste giza-antzeko jainkoizun bat ere arpe eta leizaetan bizi dala uste izaten da. Emakumezkoa da bera, eta iñoiz abere-itxuran edo abereen soñ-atalak dituala (auntz-oñak, sai-erpiak, eta abar) agertzen emen da, toki askotan diotenez. *Mari* du izena (1).

Gauzak itxura dutenez, eusko-mitologiak darabiltzkian irudiak eta pranko-kantauritañen erti- edo uskurtz-mañesturak berdiñak dirala esan gentzake. Bietan irudi berdiñak, eta eliz edo bizitoki berberetan azaltzen zaizkigu. Euskal-ipui eta esaundak dakartzkiguten eñañu eta islarak, Paleolitos-garaiko eiztarienak dirudiete, eta, gure ustez, oetatik datortzkigu (34 i.).

---

(1) Barandiaran'dar J. M.: *Mari o el genio de las montañas* (Donosti, 1923); *Eusko-Folklore*, passim.



IV

**EPIPALEOLITOS ETA NEOLITOS-GARAIAK**





Paleolitos - garaia eta Pleistokenos'ko azken otzaldia batetsuan amaitu ziran. Egurastia galanki beratu eta epeldu zan.


Ondoren abere-mota asko galdu ziran, otzaldikoak beintzat. Beste batzuek (*rangifer, pboca*) uruti-  
ra aldendu ere bai.

Orekiñ, jakiak gutxitzen zijoazen. Eta gizona, izakera beñi oen mende, bere bizi-bideak zuzendu beañean gertatu zan. Abelera motxa. Oraindik galdu gabe iraun zuten abere-mota pixkak zeuzkan janaritzat; itxasaldean beñiz izpelkiak. Ara or Epi-paleolitos-garaiko euskaldunen bizikera.

Ongañi gabez landarak askotan igartu oi diran bezela, Arlandu-garaiko gogolantze guztia, bere erti eta langintzaekin, tximeldu eta lurjotzeraño etoñi zan.

Lengo tresna asko galdu ziran; orain ez zan alakorik egiten, beren beañik etzalako. Batzuek, ordea, lenauko edertasun eta egokitasun berean

oraindik iraun zuten, batik bat bizkar zanpatuzko gezi-mutuak, ertz landutako ar-igekiak, sukafai-aitoak eta maruxkak. Beste langai batzuek beriz ainbeste ardura gabe egiten ziran. Garai onetako



35 irudia.-Azildar langintza. *a, b, c, d, e, f* eta *g*, Ermitia'ko gezi-mutur eta ertz-ikutudun igekiak; *h* eta *i*, Santimamiñe'ko maruxkak; *k*, muturbiko zulakaitza (Santimamiñe); *l, m* eta *n*, Ermitia'ko arkaxkarezko langaiak.

ezuñezko arankaziak ikusi besterik ez dago. Oso baldañak dira, eta gañera ez len bezela biribilak, lau-ertzdunak baizik.

Europa'ren sartaldean Epipaleolitos-garaiak bi  
aldi ditu: *Azil'koa* eta *Kanpiñi'koa*. Baño Eusko-pire-  
ne-mendietan ez zan garai artan guztian, oraindaño




36 irudia.-Ermitia'  
ko azildar ańanka-  
zia

dakigunez, azildar gogolantzea  
baizik. Kira ořetako gauzak  
agertu izan dira benepein Kor-  
tezubi'ko Santimamiñe'n, Le-  
keitio'ko Lumentxa'n, Dima'ko  
Baltzola'n, Mañari'ko Silibran-  
ka'n, Abadiño'ko Bolinkoba'n,  
Deba'ko Ermitia'n, Garagartza'  
ko «Lamiñe'n eskatzen», Itziar'  
ko Urtiaga'n eta beste toki ba-  
tzuetan. Ermitia'n eta Urtiaga'n  
batik-bait, lau-ertzeko ańanka-  
ziak ere ba-zeuden; zulodunak  
berak, zintzilik jartzeko (35 eta  
36 i.).

\* \* \*

Pranko-kantauritar luńalde-  
etan Protoneolitos edo Leen-  
neolitos garaiak izen berezi bat  
du: *Astur'koa*; alegia. Orduko  
langintza ere zerbait berezia bait-zan. Euskaleńia'n  
ordea garai ortako gauza gutxi agertu da oraindaño.

Biafitz inguruko Mouligna'n asturtar suañizko amabi pikotx arkitu zituan Daguin jaunak. Neolitos- edo Arlaban-garaiko luñontzi eta ikatz-mala baten azpian zeuden. Geok ere Santimamiñe'n, azpiko maskor-malan, asturtar-antzeko suañi-pikotx eta ziri batzuek bilatu ginduzten. Baita garai onetako zulodun adar-mutur bat ere (37 eta 38 i.).



37 irudia.-Astur-aldiko (?) ari langintza (Santimamiñe)

Oietzaz gañera ba-dira baita Paleolitos-garaian bezelako tresnak ere, naiz suañizkoak, naiz ezuñezkoak: ertz landutako igeki edo añime luzeak, gezimutur bizkar-zanpatuak, ezuñezko ziritxabalak, eta abar.

Epipaleolitos-garaian Europa'ko sarta ldean al-  
daketa aundiak izan zituan gogolantzeak. Baño al-  
daketa oien ikararik ez zan Euskaleñi'raño iritxi. In-  
guruetakoko eñietara bai: kapsa'tar gogolantzea, bere  
añitxikizko langintza eta guzti, asko zabaldu zan.




38 irudia.-Ezuzezko  
ziritxabalak (a eta b) eta  
adar zulodun puska (c)  
(Santimamiñe)

Kapsa'tarak bañeatu zuten  
toki oietan makuluak jateko  
oitura. Baño janari mota au  
ez da Euskaleña'n gaur arte  
sartu.

\*\*\*

Neolitos-garaiko ager-  
kaiak Euskaleñi'ko baztar ba-  
tzuetan azaldu izan ditugu.  
Ba-dira Iruña eta Gazteiz'ko  
erakustokietan otañi edo  
ophitazko eta fibrolitozko  
zenbait arlaban-aizkora. Da-  
nak toki banakatuetan arki-  
tuak dira. Batez ere Alaiz-  
mendin, Lumbier'ko arzulo batean, Bakaikoa'n (au  
oso aundia da), Imarkoain'en (luzaeroan 40 neur-  
kin-eunen ditu berak), Kontrasta'n, Gazteiz ingu-  
ruan, Apodaka'n, Faido'n, Araya'n, eta abañ. Oien  
antzeko beste oroipengañi batzuek ere arkitu izan

dira San Bartolomelañe'n (Gazteiz'tik bertan), Arzeniega'n, La Negresse'n, Sordes'en, Tercis'en eta Sainte Lauzanne'n.



39 irudia.-Apodaka'ko aizkur-labanak (Eusko-Ikas-kuntza'ren Erakustokia.—Gazteiz)

Santimamiñe, Lumentxa, Ermitia, Urtiaga eta Baltzola'ko lurmaña batzuek neolitos-garaiko lan-gaiak ba-dituzte: aizkur-labanduak, mañuak, gezi-mutuñak, aiztoak, mutur-bizkar-landuak (Paleolitos-aldikoen antzekoak), luñ-ontziak (zakar xamañ-

ak, batzuek esku-utsez, besteak zume-otar-antzeko eikontzian egiñak) eta abar.

Garai onetako lur-ontziak «arzulo-lantzekoen»<sup>(1)</sup> erako apaindurak zituzten: batzuetan lokañi-antzekoak, beatz ikutuz tarteka zanpatuak; besteetan beriz azkazalez egindako ildotxo eta ebakiak (39 eta 40 i.).

(1) «Arzulo-lantzea» España'ren erdiko lufaldeetan azaldu eta azitako gogolantze bat zan. Jatoriz Kapsatara bera.

V

ENEOLITOS- BURDINORI- ETA

BURNI-ALDIAK





Europa'ko sartalde luřetan Jesukristo baño bi mila eta bosteun urtez lenagotik asi zan Eneolitos edo Uřaida-aldia.

Burdinori-aldia beřiz bosteun urtez berandua-go asi eta mila urtean iraun zuan.

Ondoren, Burni-aldia igaro zan, eřomatařen za-balkuntzak arteraño.

Paleolitos eta Epipaleolitos aldietan pranko-kantauritařak eizean eta ařantzaz zuten beren bizi-bidea. Azkenaldean oso jausi eta beartsu bizi izan ziran luzaro. Ondoren, ordea, geldiro-geldiro abere-zai egin ziran, luřalde menditsuetan beintzat. Ibař-etan nekazaritzako besolanai ekingo zioten noski.

Beraz gizonaren bizierak aldaketa aundia egin zuan garai artan. Euskotařak lantzegai beřiak sortu zituzten, eta erbestetik zetozkienak laxter beretu ere bai. Ořela beren gogolantzea albizitu eta indartu zuten. Gogolantze beři oni *Pirene-lantzea* deitzen diogu, Pirene-mendietan eta bere inguruko luřaldeetan sortu zalako.

Lantze au Euskaleñi guztian zabaldu zan; baita Aragoi'ko ipar aldean ere Kataluni'raño. Prantzi'ko ego-sartaldera beñiz Goien-pirene eta Goien-garonatik beruntz mardul isuri zan. Oraindik ere eñialde oietan, naiz arkeolojizko ondakiñak, naiz toki askoren izenak (euskal-izenak, alegia) Pirene-lantzearen aztarna garbiak dira (¹).

Eneolitos-aldian sartaldeko Pirenetan bizi izan ziranen giza-ezuñak ikusi ondoren, aiek ere euskaldunak eta eusko-endakoak zirala esan gentzake.

Ona emen enda onetako giza-ezuñen berezitasun edo izakerak. Geienak burua, ez luze eta ez zabal, ia borobila dute (*mesokefaldunak*). Baldoki irtenak. Lepondoko zuloaren aurre-ertza oso sartua; oregatik euskotañak bere lepoa zutitzen duanean, kokotza bildu xamañik jartzen du. Beko matralezua estua. Kokotz-mutuñ irtena. Suduñ beñiz luze xamaña eta zoñotza.

Argibide oek adierazten digutenez, oraingo eta Eneolitos-aldiko euskotañen giz-eredua *Almeria'tar lantze'koenagandik* (²) eta beroien ondorengo ibertañengandik oso berezkatua beti izan degu, bata

---

(¹) Barandiaran'dar J. M.: *Etnologia de la Peninsula Ibérica* (Riev'en, XXIV i., 627 or).

(²) *Almeria'tar lantzea* Aprika'tik sortua zan. Almeria'inguruan asko azi eta zabaldu zan, eta Españi'ko alderdi askotara bere efoak luzatu zitan. Geroztiko *ibertafak* almeriatañen ondorengoak ziran.

besteakin Eneolitos-aldi ezkeroztik artu-eman asko izan aŕen.

Garai artan erbestetik Euskaleŕi'ra lantzegai asko sartu ziran. Oŕela dira trikuaŕi edo armorkorak (Portugal'en sortuak noski); joale antzeko edontziak; gezi mutuŕen egikera batzuek eta uŕaida, *Almeria*'taŕen bidez eskutaratuak; gaudiko zenbait izaki eta indaŕenganako sinismen eta gurtzak ario taŕen uskurtzetik artuak <sup>(1)</sup>; aŕizko, uŕaidazko eta burdinorizko aizkoren ereduak ipaŕeŕietatik geroago etoŕiak, eta abar.

Eusko-eneolitos-garaiko oroipengaiak trikuaŕietan eta aztarna-toki batzuetan arkitu izan ditugu.

Ba'dira trikuaŕiak Abodi mendin (Salazar ibarŕean), Lindus eta inguruetan (Oŕeaga eta Auriz'tik bertan), Ardaitz'en, Lerate'n (Lekaroz), Alkuŕuntz'en (Amayur'tik laister), Landarbaso'n, Aralaŕ'en, Murumendi'n, Goŕiti'n, Leiza'n, Belabieta'n, Ataun-Burunda mendietan, Altzania'n, Urbasa'n, Entzia'n, Aizkoŕi'n, Elosu-Soraluze'n, Kalamua'n, Salbatieŕa-inguruan (Aizkomendi'n [Egilaz] eta Aŕizalla'n), Elgea-mendin, Gorbea'n, Oiz'en, Badaya'n, Kuartango'n, Gibijo'n eta Aŕnes'en.

Trikuaŕi salak gaurko artzai-saroberik aundi

---

(1) Ario edo indoeuropataŕak geroztiko gerkataŕ, latar, germandar, eslavotar eta keltataŕen aŕrekoak ziran.

eta ospetsuenak dauden toki berberetan arkitzen dira (Aralaí'en, Aizkoí'n, Urbasa'n, Entzia'n, eta abaf).

Garai artako arkeologizko aztarnak ba'dira *Santimamiñe*, *Jentiletxêta* (Mutriku'n), *Urutiaga*, *Surbi* (Araya inguruan), *Salbatierabide* eta Kontrasta'tik bertan dagon *Lamikela*'ko lur-malaetan ere.

Burni-aldikoak (agian lenagokoak) izan bear dute Alda'n, *Santa Teodosi* inguruko arzulo batean oraindik-orain agertu diran luí-ontziak. Baita Oro'ko Andra Mari'ren aldameneko landan eta *Kútze-mendi*'n dauden aztarna-tokiak ere.

*Bizikera*.-Eneolitos-aldian Euskaleí'ko biztanle geienak abeldun eta artzaiak ziran. Baita Burdinori eta Burni-aldietan ere. Itxasaldean, ordea, aiantza zerabilkiten; eta Eíiojan eta Napaño'ko egoaldean, nekazaritza.

Trikuaí salak eta artzai-sarobeak toki berberetan egoteak naikoa adierazten digu garai aietako euskaldun asko artzai ibiltzen zirala.

Etzan orduan luíezaz iñor jabetzen; ezta etxe edo bizitokiezaz ere. Txabolan bizi aíen, etzan txabolaren jabe. Au gaur ere onela da artzaien artean. Artzaiak galerazita daukate txabola-ataka giltzaz ixtea, baita txabolagañari telak ezartzea ere, telak jabetasuna adierazten dualako.

Abereak ziran orduko sendien aberastasuna. Ortik dator *aberatsa*, abere asko dituana. Ori bera indo-europatar izkuntz batzuetan ere gertatu da. Aberastasuna eta dirua esan nai duten itzak lenen-gotik abere izenak ziran (lat. *pecunia*=dirua, *pecus*=aberea; alom. *Schatz*=dirutza, lenau aberea; got. *faibu*=abere, diru, dirutza).

Beraz gutxienez eneolitos-garaitik aberatsak eta beartsuak nabarmentzen asi ziran Euskaleña'n, artzantza sortu zanetik alegia.

Lenago etzan dirurik, eta artu-emanak ordainetan egiten ziran. Oraindik ere erleak ez dira diruz saltzen: beste zerbaitez ordaindu bear dira. Au ere aldi aietako aztarna bat da noski.

Zezen, bei, idi, auntz, aari, ardi, txerri, zaldi, zakur, eta abar, oien adin edo biziaroak izentatzeko erabiltzen ditugun beste itz batzuek, abere oiek aldi artan edo lentxago eziak izan zirala esan nai digute. Geroago eziak izan balira, indo-europatar izenak izango zituzten. Ala gertatu zan beintzat neolitos garaia ezkeroz indo-europatarak beren kutsua sartu zuten beste erietan. Oregatik abereak ezi eta azitzeko oitura eneolitos-garaia baño lenago emen sortu zala esan gentzake.

Euskotarak orain azitzen duten bei goñi ori antziñan emen bertako mendietan zebiltzan betizuen

ondorengoa da. Leendik euskaldunak eiz-lanez eskutaratzen zuten aberearen umeak gero ezi zituzten (1).

Trikuañi asko mendi aundien gañetan daude (Urbia'n, Urbasa'n, Aralañ'en, Gorbea'n, eta abar); artzantza neguan ezin litekean tokietan. Oregatik orduko euskaldun asko, nai ta nai ez, bizitokiz aldakoñak izan bear. Udaran goietan, neguan beere-tan, gaurko artzai batzuek bezela.

Gañera trikuañi oiek bata besteagandik alden-duak arkitu oi dira. Biztanleak ere sakabanatuak zeuden nunbait, oraingo txabola, sarobe eta baseñi-etxeen eran. Beraz aspaldikoa da Euskadi'n etxe bakanduen oitura. Etxe sail edo eñi bilduen astere-nik beñiz ez da emen garai aietan.

Itxasaldeko euskaldunak arantzatik bizi izan ziran luzaro. Egoaldekoak beñiz nekazaritzatik.

Nekazaria bakañik egiazko langiletzat zeukatela esan liteke. Bere izenak ala adierazi nai duala dirudi beintzat.

*Aitzur* aitze'tik dator. Ba'ziran beraz emen aitzuñak, langai oek ariz (aitzez) egiten ziran garaian, eneolitos edo neolitos aldian noski.

Gurdizaleari, eta baita uzta-bei edo uztañ-idiakin lanean dabilenari ere *itzaia* deitu oi zaio, idi-zaia

---

(1) Staffe (Aldolf): *Beitrage zur Monographie des Baskenlandes* (Riev, XVII, 1926, 34 of.).

alegia. Idiakin lan egitea baño idizaintza lenagokoa izan zan nunbait.

*Laia* edo *laña* (*langaia?*) da nekazaritzako beste langai bat. Biortzeko burni-tresna bat da. Eskuz erabiltzen da bera, eta abereak nekazaritz-lanetan asi erazi baño lenagokoa izan bear du. Lur-lanetan maiz erabilia izan da beti Euskaleña'n.

*Bizitokiak*.-Euskaldun asko oraindik arzuloetan bizi izan ziran. Arzulorik etzan tokietan aterpeak eskuz egin bear izaten zituzten. Aterpe oek nola-koak ziran jakiteko ispilurik obeenak ikazkin- eta artzai-txabolak dirala deritzot. Artzai askok edes-ti-aureko bizitokietan dituzte beren txabolak. Le-gaire'n (Entzia-mendin) trikuañi zar baten gañean dauka bere txabola German artzaiak. Leiza'ko tri-kuañi bat beñiz (*Agoritz*-mendin dagona alegia) artzai-txabola izan da luzaroan.

Txabol oek ez dute aldaketa aundirik izan beren sortzetik gaurdaño; itxura eta gai oso eñazak eta nastegabeak bait dituzte. Geienak leño-zuzenezko oroi luzea dute, eta bañuna bi zatitan: txapitola edo eskaratza eta sukalde-gela. Añizko orma txiki legoñak, eta oen gañean isuribiko estalia, abez, zotalez eta garoz edo iñañez jantzia.

Ormagabeko txabolak ere ba'dira, eta beren isuribiko estalgaña luñean ezaña dute. Oñelakoak

dira egurgiñ eta ikazkiñen txabolak. Sutokia erdian daukate, eta bere inguruan etzauntzak. An etzaten dira ikazkiñak, oñak sualderuntz dituztela. Era onetakoak izan bear zuten antziñako euskaldunen bizitokiak ere. Arzuloetan beintzat atarbearen erdialdean arkitu oi dira sutokiak.

*Jazkera.*-Uráida-garaiko jantzien beñi gutxi dakigu. Eta aldi artako euskaldunak nola jazten ziran beñiz ainbat gutxiago. Esku artean geien zerabiltzkiten gaiakin bere soñekoak egingo zituzten noski. Toki askotan aberezaiak bait ziran, eta ardi-, auntz- eta beinañuakiñ beren jantziak tajutuko zituzten. Jantzi oietako batek *soñekoa* zuan bere izena, eta oraindik ere burua ez beste soñ guztia estaltzen duan jantzi zabalari oñela deitzen zaio.

Oñetakoak ere nañuz egiten ziran. Gaurdaño erabili izan dira oñetako edo abarka oek.


Ari eta jantziki asko ilez iotzen ziran, eta aro onen azkenaldean beñiz baita muñoz eta amukoz ere. Oñelako langintza ba'zala, naikoa adierazten digute Kûtzemendi'ko (Mendiola'n, Gazteiz'tik bertan) lurmaña edo aztarna tokian bilatutako eundegi-aztakiñak.

*Langintza.*-Añizko langai eta beste gauza asko lengo aldian bezelakoak zerabiltzkiten oraingoan ere.



Garai onetan agertu ziran lenengo menastagauzak (eztenak, esku-uztaiak, gezi-mutuak, uraia-aizkorak, eta abar).

Luñontzi gauzetan ere tresna berriak sortu ziran: joale antzeko edontziak; biur-apaingaridunak eta ildotxotuak, luñontzigintzako deztera, eta abar, (41, 42 eta 43 i).




41 irudia.-Balenkaleku'ko (Ataun) arlaban-aizkora. Begi-baruan ildotxo bat dauka

Berriki oek *almerita*ren eta *España*'ren erdi aldeko *arzulo-gogolantzearen* kutsuak ziran.

Beste berriki batzuek iparaldeko erietatik zetortzen, batik-bait Balenkaleku'ko aizku'eredua, eta burdiñorizko gerotizko aizkorak.

Eneolitos edo uraialdia ezkerro igaro ziran, bata bestearen ondoren, burdiñori- eta burdinaldia. Garai oietako euskaldunen berri asko oraindik ez dakigu. Iruña'ko erakustokian dagon burdiñorizko aizkora, Arzeniega'n eta Kutxinobaso'n (Ziortza'n) arkitutakoak, Orkatzategi'n (Oñate'n) eta Gernika'n bilatutako aztamakilak eta Ziortza'ko esku-uztaiak (oek ere burdiñorizkoak) aldi aietako

tresnak dira (44 eta 45 i.). Ordukoak izan bear dute Salbatierabide'ko (Gazteiz) soñ-austuen ilobiak, eskuz egindako luñontziak (eltze zulodunak




42 irudia.-Eneolitos-aldiko suañizko geziak: *a*, Ueloguena'ko (Aralar) azkon-mutuña; *b*, Ermitia'koa; *c*, Jentiletxêta'koa; *d*, Pagobakoitza'koa (Aizkoñi); *e*, Oiduegi'koa (Aralar); *f*, Jentiletxêta'koa; *g*, Gorostiaran'go (Aizkoñi) aiztoa

eta adardunak txintxilik jartzeko) eta añizko aizkora eta azkonak.

Burdin-aldikoak, batik-bait Hallstatt-aro ezkerrozkoak, dira Oro'ko eta Kützemendi'ko aztarna tokietan dauden luñ-mala batzuek. Kützemendi Gazte-


iz inguruko muño baten gañean arkitzen da. Eta bertako ondakiñak itxura dutenez, Soria eta Lo-



43 irudia.-Pagobakoitza'ko (Aizkoñi) tregoañian arkitu genduan txilin-antzeko luñontzia

groño'ko keltibertañen gaztelu antzeko eñien bat izan zan toki artan. Luñontzi puska zatar asko

agertu oi dira bere oroian, biur antzeko eta bea-  
tzez egindako apaingariz tajutuak; baita eutegiko  
aztakinak ere, lur-érez egiñak eta gañera txintxilik  
jartzeko zulo biz orrituak, eta abar (46 i). Garai  
berekoak dirudite Salbátieábide'ko bigaeren lurma-  
lan agertu ziran zenbait gauzak, batez ere lurontzi-  
ak (eratiluak eta lapikoak), ezuérezko oratz eta



44 irudia. -Zaba-  
laitz'ko (Aizko-  
ri) burdiñorizko  
aizkora

jostoratzak, eraztunak, oratz-ga-  
lezkoak, gerestun-beñiak, bur-  
diñorizko oratz eta jostoratzak,  
eta abar. Aztarnatoki oen antze-  
koak dira Iruña'ko,—Santa En-  
grazia'ko (Laguardia) eta Oro-men-  
di'ko lurmalak ere (47 eta 48 i).


Etxauri'n bilatutako ezpata  
adarduna, aztamakil-mutuak,  
zaldien aokoa, itaia eta golde-mu-  
tuá kelta'taeren eragipenez etoñiak  
izan bear dute noski. Beraz bur-  
din-aldikoak oek ere (49 i). Orain Iruña'ko erakus-  
tokian daude.

\* \* \*

*Uskurtza* edo *erlijioa*.—Megalitos edo uraída-  
aldian <sup>(1)</sup> asi eta keltataeren azken-bultzaraño lan-

<sup>(1)</sup> Uraída-aldiari iñoiz megalitos-aldia deitzen diogu, garai artan Eus-  
kaleña'n ari aundiakin ilobiak egiten ziralako.

gai eta beste tresnak geldiro-geldiro aldatuaz zi-  
joazten. Baño bitarte ortan bestelako erauntsi  
batzuek ere jazo ziran (gogaizkoak alegia) eta




45 irudia.-Eneolitos- eta burdiñorialdiak. Menasta-  
tresnak: a, Lamikela'ko (Kontrasta) aztarnatokian  
arkitutako esku-uztaia eta azkon-mutuña; b eta c,  
Obioneta'ko tregoarian zeuden azkon-mutuñak; d,  
Uelaguena'ko tregoarian agertu zan eztena; e, Obio-  
neta'ko tregoariko aztamakil-mutuña

eusko-gogolantzeari naiko aldaketak eragin ziz-  
kioten. Erauntsi aiek indoeuropatañenak ziran, eta

beaien kutsuak oraindik mardul eta ugari agertzen zaizkigu Euskadi'n.

Euskerazko *ost*, *ortz*, *yurtz* eta oñelako beste itz batzuek goiko izartegia izendatzeko erabili oi dira. Eta gure ustez Jainkoaren lenauko izenarekin zer ikusi aundia dute. Antziñan Jainkoaren euskal-izena *Urtzi* edo *Urtzia* bait zan, Picaud'tar Aymeric'ek dionez. Indoeuropatarak ere Jainkoa edo



46 irudia.-Eutegiko lufezko aztakiña (Kûtze-mendi'n bi-latua)


Goieneko Izakia era ortan izentatzen zuten, *Dyeus* (=izartegia) berari deituaz. Indoeuropatarak eta euskaldunak gai ontan berdin jardun zuten beraz.

Ez da ajolarik *Urtzia* eta *Ortzia* (=iñusteria edo ostotsa), zenbaiten ustez, bat izan aŕen; indoeuropatar edo ariotaŕak ere—geroagoan beintzat—beren *Dyeus* iñusteriaren eta tximistaren jainkoizuntzat eduki zuten.

Berdintasun oek oraindik auŕerago dijoaz: euskaldunak ere, ariotaŕak bezela, osteguna izartegiari edo izartegiko argiari—beren jainkoizunari—opaldut zioten. Egun oñen izenak (*ostegun*, *orzegun*=izartegiaren eguna; *eguen*=eguzkiaren edo izartegiko argiaren eguna) ala adierazten digute, eta ariotaŕak

osteguna izentatzeko zerabilzkiten itzen ikurpena berbera dute.

Baldin ostegunaren euskal-izenak ariotañen izkuntzatik itzuliak ba'dira, oso antziñatik datozkigula esan gentzake: ariotañen izenak zer esan naituten ezaguera erietan galdu baño lenagotik, agian ariotañak zabaltzen asi ziranetik.




47 irudia.-Oratz galgaitzak: a, Salbatierabide'koa (Gazteiz), b, Santa Engrazia'koa (Laguardia), c, Iruña'koa (Araba)

Ortz, Ost, Ortzi, Urtzi edo Egu (=izartegia edo izartegiko argia) euskaldunak beren jainkotzat zeukatela naikoa azaltzen zaigu. Eta azken-neolitosaldian bera gurtzen asi ziralá esan gentzake; ariotañen lenengo gogolantzea, O. Schrader'ek dionez, ordutikakoa dan azkero <sup>(1)</sup>.

<sup>(1)</sup> *Die Indogermanen*, 17-18 or. (Leipzig, 1919). Ariotañen gogamena ez zuten euskaldun danak era batera itzuli: gipuzkoañak *ost*, eta bizkaitañak *egu* jafi zuten. Oregatik euskerak efo bi edo geiago ordurako emanak zituala nago.

Ostirala ere izartegiari opaldua zegon. Beren izenak (*ortzirala, ostirala eta eguakitza*) ala esan nai digute. Oregatik nunbait egun orek uskurtz edo erlijiozko ikurpen edo kutsua gureganaino ekañ du. Oraingo sinismen eta oiturak ala azaltzen digute beintzat. Ona emen sinismen eta oitura oetako batzuek: ostiralean lan aundirik ez dala asi bear; artzaiak ez dituztela egun ortan beren sendi eta



49 irudia.-Etxauri'ko burni-tresnak

artaldeak udako saroietara aldatu bear; erleari etzaiela ezirik kendu bear; emakumeak ez duala aúregin-da geroko *eliz-sartzea* ostiralean egin bear; azkazalak ez dirala moztu bear; zenbait sendakaik ostiralean bakañik indaño izan oi duala; ñla ostiralean sartzen bada, egun ortan egiten duan eguraldia, il



guztian ere izango dala; gaizkiñak, batez ere sorgi-  
ñak, ostiraletan beren batzafak izan oi dituztela,  
eta abar. Ostirala, bada, gauza askotan jai-egunakin  
berdin dijoala ikusia dago.

Eguzkiak izen asko ditu Euskaleña'n. Oietako  
batzuek «Jainkoaren begia» edo egun-argiaren be-  
gia (*euzkibegi*) esan nai dute, argia eta jainkotasuna  
berdinduaz.

Eguzkiari dagozkion sinismen eta ipui asko in-  
doeuropatar edo ariotařetatik datortzkigunak dira.  
Bera emakumezkoa dala diote ipui oek.

Eguzkia sartaldera izkutatzean, *agur* esaten zaio.  
Toki batzuetan agurka luzeagoa egin oi diote esa-  
naz: *Eguzki amandrea badoia bere amangana, biar etori-  
ko da denpora ona bada*. Zenbait eritan beřiz *Santa  
Klara* deitzen diote, izen onekin argia adierazi  
naiez: *Zeu zera Santa Klara, euskeraz Argia*.

Antziñan Garagařila eguzkiari opaldua zegon.  
II ořen izena *Ekhaina* zan (*ekhi*=eguzkia), orain  
*Eguzkiena* (agian *Eguzkigaina*), esango bagendu be-  
zela. Berau gertatu zan indoeuropa'tar erietan ere.

Eguzki-lorea (*Carlina acaulis*) eguzkiaren irudi-  
tzat daukate toki askotan.

Eguzkiak bezelatsu, eguzki-loreak ere uxatzen  
ditu ilunpe-mamuak edo gaue-gauekoak. Sorgin  
eta tximistetatik etxeak gordetzen ditu. Ortarako,

ordea, etxeko atean jañi bear da eguzki-lore bat. Eguzki-egun berezia dan Jondoni egunez, ikuluko ate batean jartzen ba'da beñiz, eri guztietatik etxe-abereak zaitzen ditu (50 i.). Alan da esaera.

Indoeuropatarak zenbait abenda eta eñiri ezañi zizkien sinismen eta oituretatik, Jondoni egunari dagozkionetako sail galanta Euskaleñia'n ere zabaldu zan. Ona emen aietako bat edo beste: Jondoni goizez eguzkia dantzan irten oi dala uste izatea; urtan murgildu edo belar-intzetan oñutsik ibiltzea, urte guztian gaitzik izan ez dedin; etxeko ate eta leioak eloñi-zuri eta lizar-abañez apaintzea, bertara tximistik erori ez dedin, eta abañ (51 i.); etarte edo ataria zenbait lore eta belañez edertzea; lore-belar oek urte osoan gordetzea, beren ura, gaitz batzuek sendatzeañen, artzeko; Doniban auñeko añatsean etxe ondoetan eta bidegurutzetan suak egitea; su oetan piztutako belar sortak, mamu gaizto edo gaizkiñak uxatzeko eta izuñi eta gaitzak uztatik aldentzeko, soroetara eramatea; su oien gañetik, gaitzik etoñi ez dedin, saltoka ibiltzea; Jondoni-zuaitza zeñ edo enparantzan ipintzea (zuaitz onetan jabeak ez du geiago eskubiderik, berak nai ezta eramane ba'diote ere); Jondoni'ren zenbait baselizetara joan oi diran bidaztiak lore eta belañezko koroñ edo burestunak eramatea; etendunak, etena

sendatu datzaikioten, aritz baten pitzatutik iru aldiz igarotzea, eta abar...

Orain aipa ditugun sinismen eta oiturak ario edo indoeuropataren antziñako uskurtzatik datortzkigunak dira. Ekain-jai oek zertarako ziran eta zer esan nai zuten, berak naikoa adierazten digute: suak, burestunak eta loreak eguzki-jainkoizuna goraldutzeko; eta Doniban goizean urtatzea eta landetako intzetan ibiltzea beñiz euri- edo ekaitz-jainkoizuna ospatzeko.

Negu-buruari ariotar uskurtzan beste eginkizun eta oitura batzuek dagozkio; eta oitura oiek Euskaleñia'n ere noizbait itsasi eta indar artu zuten. Oñelakoak dira urtezarreko suak; «gabonzuzia» edo Egubeñi aldean sutokian ere oi-dan enboña; etxe-abereak garbitzeko, enboñ oñen gañetik igaroazitzea; gabon-gabeko ogia etxeko-jaunak onestea; gabon-zarrez, amabiak ezkeroz datoñen len-ura jasotzea. «Egubeñi» (=egun edo eguzki beñi), eguzkiaren jaiotegunari dagokion izena da. Ariotañen zenbait erik ere neguburuan ba'zuten eguzki-jaiotegun ori.

Eguzkia jainkostat zeukateleko, ilobi edo tregoañien atakak sortaldera begira jartzen zituzten. Ìla beñiz, burua sartaldetik eta oñak sortaldetik zituuala, baruan etzin oi zuten.

Ilargia ere emakumezkoa da eusko mitolojian. Askok, sortaldetik agertzen dan orduko, agur egiten diote, esanaz: *Ilargi amandrea, ¿zeruan zer beñi?...*, edo beste oñelako esakeraen bat. Zenbait tokitan «salvea» ere esan oi diote ateratzen ari dala ikus-tean. Jainkoa'ren arpegia deitzen diote. Gauzak ugalduta erneerazteko indaia ere ba'duala uste oi da. Lan batzuek ilgoran galazita daude, edo beintzat kaltegarñiak izaten dirala uste da (zuaitzak botatzea, txerñiak iltzea, eta abar).

Ilberan baño ilgoran iltzea onuragarñigoa dala batzuek sinisten dute.

Ilberñian etzaiela erleai eztirik kendu bear ere esaten da.

Lenauko *Urtzi*, *Ortz* edo *Ost*, ekaitzak ekartzen zituan jainkoizun bat zan; ori dala-ta, ba-du jainkoizun oñek iñusteri eta tximistarekin zer ikusirik; ala adierazten digute beintzat iñusteriak eta tximistak euskeraz dituzten izenak. Ona emen iñusteri edo turmoiarenak: *ostots* (ost'en oñsa edo zarata); *ostroi* (ost'en oñoia?), *ortzantz* (ortz'en oñsa?), *ozmin*, *ortziri*, *iortziri*, *iurtziri*, *yurtziri*, *yusturi*, *iñusturi*, *iñusteri*. Tximist eta oñaztarñien izenak ba'dute zer ikusirik turmoiarenakin, beren len-zatia begiratzan ba'diogu beintzat. Ona emen izen oiek: *iñizitu*, *iñezetu*, *oñaztu*, *oneztu* (tximista'ren disdira), *ixto*,

*oneztari* (*oneztu*'ren *aia*), *oñaztar*, *oñazkar*, *ozpiñari* (*ozmin*=*turmoia*+*ari*), *tximistari* (*tximist*+*ari*). Azken-zatitzat *ari*, *ar* daukaten itz oek lañoetatik luñera jauzten dan electro-indaía izendatzen dute; besteak beñiz, lañotik lañora dijoana.

Oñaztañaren euskal-izenak, indoeuropatañen bi mito edo ipui gogorazten dizkigute: Thor'en mañu eta Jupiter'en geziakiko mitoak, alegia.

Euskaleñi guztian zabalduak daude bi mito oiek. Oñaztaña berarizko *ari* bat dala uste oi da (arlaban aizkora, aiztoa edo sukañi-printza); *ari* ori luñera erortzean zazpi eztauz lurperatzen emen da; gero, urte bakoitzeko eztauz bat igoaz, zazpi urteren buruan azaleratzen dala diote. *Ari* ori dagon etxera oñaztañik ez emen da erortzen <sup>(1)</sup>.

Toki batzuetan burniorizko zeren bat dala uste dute oñaztaña; beste batzuetan beñiz, burnizkoa dala.

Gaurko egunean ere atalondoan galtzairuzko aizkora jañi oi da auaz gora, iñusteriketan dagonen, etxea oñaztañetatik zaitu dezan <sup>(2)</sup>.


Oñelaxe ipiñita zegoan burniori-aldiko aizkora bat *Zabalaitz*'ko leize-sañeran (*Aizkoñi*-mendian).

---

<sup>(1)</sup> Auxe bera uste zuten indoeuropatañak ere, L. von Schroeder'en idaztian ageri danez: *Arische Religion*, II, 610 or. (Leipzig, 1923).

<sup>(2)</sup> Etxe batzuetan beñiz, ortarakoxe, deun-irudien bat atera oi dute.

Indoeuropataren sinismen eta oitura oiek, gauza berriak (galtzairuzko aizkorai) ezarriak egon arren, oraindik ere bizkor irauten dute. Sinismen eta oitura oiek Euskaleri'ra eneolitos aldian zabaldu zirela, emendik atera dezakegu. Oñelako sinismenak eta oiturak, izan ere, lenau arizko aizkorai



52 irudia.-Ikazkin-txabola baten sañera. Bere atalondoan or ikusten da aizkora bat, aua gora begira duala. Inusteriketan dagonean jartzen dute ori oñela. Oñaztariak alderazten dituala esaten dute. Sinismen ori antziñan aizkorari opa oi zitzaion gurtasunaren aztarna bat da

erantsiak zeudelarik, geroztiko euskaldunak menastazko aizkorai ezarri zizkioten. Eta aldaketa ori, nai ta naiez, oraindik arizko aizkorak egiaz aizkorak zirana ba'zekiten garaian egin zuten: eneolitos-aldian, alegia (52 i.).

Ariotañen uskurtzan *Odbin* edo *Wodan* izartegiko jainkoizunaren tokian geroz sartu zan beze-

la, Euskaleri'n ere *Odei* izeneko ekaitz-jainkoizuna sartu zitzaigun antziñako *Urtzi* edo egurats-jainkoizunaren tokian. Ekaitz-lañoa eta *Odei*, batzuetan, berdintzat artzen dira.

Zeanuri'n eta Orozko'n ekaitzen buru dabilen jainkoizunari *Odei* deitzen diote. Ekaitz-lañoa bera da *Odei*. Eñiaren aotan mulko beltz borobil bat da

Odei edo jainkoizun au. Jakiñeko leize batzuetatik irteten emen da. Iñusteria da jainkoizun oñen abotsa, *odaiots* (=Odei'ren otsa).

Odei'k lenago aipatu degun *Mari* edo lagun-irudizko lurpetar jainkesarekin ba'du zer ikusirik. *Mari* onek bi seme izan zituan: ona bata, gaiztoa bestea. Gaizto onek ekaitz eta ari-erauntsiak asmatu eta bialtzen omen ditu; onak, ordea, bere aldekoak bizi diran tokietan eraindu egiten diozka. Gaiztoa adiskidetzeko gatz bikor batzuek bota oi dira gora; zenbait tokitan beñiz, Jondoni egunez bildutako belar batzuek eta Eramu egunez bedeinkatutako abararak atarian eretzen dituzte.

Azti-itzen indañez *Odei'*ri beste bide bat artuerazi eta ekaitza urundu leikela askok sinisten dute.

Zeanuri'ko Ipiñizar baseñiko gizon batek, ari-erauntsiaren bildur zanean, oñelako aztikeri bat *Odei'*ri egin oi zion. Oñetarako ezkeñeko eskumutuñean uztai-belaña (*Rumex Crispus?*) kuezatu eta, *Odei'*ri begiratuaz, zein aldetara jo bear zuan eskubiaz erakusten zion.

Suak ere noizik-bein uskurtz-gauzakin zer ikusirik ba'du, ekain-garaietan batik-bait. Sukaldekosua da, batez ere, benetan dontsua. Su ori *Andra Mari* jainkesaren irudi edo ikuña da. Berari eskeintzen zaizka aurari lenengo erortzen zaizkaten or-

tzak, eta sutan botatzean onako au esaten da:  
*Andra Marie, otson ortz zâra, t'ekatzan berie.*

Jainkesa oni eta beste jainkoizunezko izakiai eta ilen gogo edo animai ika itz egiten zaie: izkera au bait-da danetan lenagokoena euskeraz.

Ezbeaŕen batez gorputzetik ebaki edo kendutako soin-atalak suari eman bear zaizkala uste oi da, eta egin ere alaxe egiten da.

Pertzean edo maskeluan egosten ari dan beiesnea, gañez egin eta sutara erortzen ba'da, gatz ale batzuek edo zaia su ortara bota bear dira; ez du bestela beiak auŕerantzean esnerik jetxiko.

Noizik-bein enbor edo ilatiak egiten duten menasta-ots me-meaz, suak ezbeaŕen bat adierazten duala uste da. Eta oŕelako okeŕik gertatu ez dedin suari gatza eskeintzen zaio.

Luŕera jausi eta zikindu diran jakiak garbitzeko indaŕa suak ba'du. Ori dala-ta, luŕari ikutu dion ogi-zatia jan auŕetik sauri erakutsi bear zaio.

Ituŕitik gauez ekartzen dan ura mamu gaiztoak edo gaizkiñak kutsutua dagola diote, eta edan auŕetik ilati-mutur gorria bertan sartu bear dala gaitzik sortu ez dedin.

Sukaldeko suak etxea ondoena antzezten digu Onexegatik etxe-luŕak mugatzen dituzten mugarrietan ere ikatz-koskoŕak jaŕi oi dira: sukaldea edo etxea bera adierazi nai bait-dute.



Oĭo edo katuren bat berendutzen dutenean baseĭitar askok sukaldeko labatzean bi edo iru bira eman-erazten diote. Onenbestez erabat etxekotzat etsi daiteke eta ez da etxetik iges joango.

Kutun-mota asko zerabiltzkiten megalitos-aldiko euskotaĭak: aĭilorak, basurde-letagiĭnak, aĭiikatzaleak eta artxuri borobilak. Onelako gauzak arkitu izan ditugu beintzat garai artako ĭlobietan, eta oraindik ere batzuek erabili oi dira, daramazkiĭna gaizkiĭnen eta gaitzen erasoetatik babestu dezaten.


\* \* \*

Eĭrietako uskurtz edo erlijioa ĭlen gauza eta egintzetan bizikiro agertu oi da. Onengatik, uskurtzen bategaz mintzatzean, berortan suspertutako ĭleta-oikunik eziĭn ĭñolaz alde batera utzi gentzake.

Eneolitos-aldiko euskaldunak tregoaĭi edo dolmenak egiteko zaletasun berezia zuten. Aĭi aundiz tajututako ĭl-obiari esaten zaio tregoaĭia. Gorputz asko bere baĭuan artu letzazke. Landu gabeko aĭimokoĭez egiĭna izaten da geienean. Aĭi oiek luĭrean zutik sartuak izaten ditu, eta beroiekin lau leĭo zuzeneko oroia betetzen du. Mokoĭen gaĭnean, aĭizabal bat edo beste, estalkitzat. Sortaldetik daukan zutikako aĭia besteak baĭno laburxeagoa izaten da, eta beroĭen eta estalkiaren bitartean utsune bat

egon oi da. Au dana sañitan muño edo lur eta aña pilo batez inguratua egoten da (53 eta 54 i.).

Tregoañiaren luzearoa sortaldetik sartalderantz dijoa. Beraz sañerako aña aurkez-aurke sortaldeari dagokio. Gorputzak luzeka etzinik jartzen zituzten, burua sartaldetik eta oñak sortaldetik zizirala.




53 irudia.-Aizkomendi'ko (Egilaz-Araba) tregoaña

Len adierazi degun bezela, ordukoak Eguzkia gurtzen zutela dirudi.

Ilondoko bizitzarako onirizten zan edariren batez betetako lur-ontzi batzuek soñaren alboan ipintzen zituzten. Zenbait kutun eta izkilu ere an soñaren ondoan jartzen ziran, gorputza beren indarez babestu zezaten. Ortarako ziran tregoañie-

tan arkitu izan ditugun aiztoak, suañizko eta ufai-  
dazko azkonak, añizko aizkorak, eta abañ... Eñaus-  
tuen il-obietan ere gauza berakaz eta ardura ber-  
dintsuz eortzen zituzten gorputz-eñautsak.

Tregoañiak gañetan, lepakaetan, añate ingurue-  
tan eta ibar batetik besterako bideak alkartzen di-



54 irudia.-Artekosaro'ko (Urbasa-mendi—Napaña)  
tregoañia

ran tokietan arkitu oi dira geinean. Eta au ere in-  
doeuropatañen kutsukoa dala esan leike: berak bait  
zituzten bidegurutzeakin zer ikusi aundia zuten  
sinismen eta egikunak. Sinismen eta egikun oetako  
batzuek gaurdaño ere iritxi zaizkigu. Izan ere, ilak  
bidegurutzetan agertzen dirala uste dute askok;  
gorputzak eleizara edo iltegira daramazkitenean,  
bidegurutzetan ildakoen gogo-alde otoi egiten da;  
ildakoen oe-lastaira bidegurutzetan eñetzen da; San  
Juan-suak ere bidegurutzetan pizten dira, eta zen-  
bait sendaketa-oikun ofelako tokietan egiten dira.  
Oro bat, ilai idi edo aarikia eskeintzea, ogia eta ar-  
gizaia il-obi gañetan jartzea eta abañ, ziur-ziur in-  
doeuropatañen kutsukoak dira.

Īlobiak bizi-lekuetan edo beoien aldamenean eraikitzen ziran. Tregoaġiak artzai-saroitarako aukera-aukerakoak diran tokietan arkitzen dira, eta *Jentiletxġta* (Mutriku'n), *Oialkoba* (Abadiano'n), *Lamiġnen eskatza* (Garagartza'n) eta *Urġiaga'ko* ar-zuloetako ĩ-obiak ere bertan bizi izan ziranen garaikoak dira. Beren bizi-lekuan edo beintzat aldamenean ĩlak lurperatzeko oitura au agian eneolitos-aldia baġo lenagotik datorkigu. Eta gaurdaġo ere iritxi zaigu: beren etxe egalpean—ituzupean alegia—bataiatu gabekoen gorputzak lurperatzen ikusi izan bait-ditugu <sup>(1)</sup>. Oitura oneri dagozkie tregoaġigaraitik datortzkigun beste sinismen eta oikun batzuek: etxeari edo iltegiari iru bira ematea txarġa dala uste izatea, eta bira oiek ematen dituana gaizkiġak eramaten dutela sinistea; ĩlen gogoai eskenitako opariak gabean etxeko leioan, atealdetik, eukitzea; etxeko ĩlobira eramaten diran oparien zati bat ildako animak aitzen dutela uste izatea; ĩleneguneko gauaz etxeko leioetan argiak piztea; bizi

(1) Eri batzuetan diotenez, bataiatu gabe iltzen diranak beren etxe egalean edo etxe-inguruko baratzen lurperatu bear dira. *Baratzak* lenau iltegia esan nai zuala uste det. *Jentilbaratza* izena duan tontor batean jentilak lurperatuak izan zirala esan oi da Ataun'en. *Pordonbaratza* du izena Ernio'ko tontor batek ere. Toki oietan, ordea, erabiltzeko lurrik ez dalarik, ezin zegokean oraingo erako baratzarik. Mendietan dauden aġiz inguratuta ko erlo biribiġ batzuei Oiartzu'en *Mairubaratzak* deitzen dizkiete. Aietan *intxixuak* (mitologizko izaki batzuek) lurperatuak izan zirala diote. Ofelako erloari Arano'n *Jentilbaratza* deitu oi zaio. Beren oroiak txikitxoak dira orain oi diran bezelako baratzak izateko.

diranai bezin beaŕeko zaiela argia ilai ere uste izatea, eta eŕiko eleizan etxe bakoitzak daukan il-obi gañean argiak piztu eta opariak jartzea.

Sukaldeko sua ez aitzeaŕen baseŕi askotan, gauez apalondoan, sua bere txingar eta suauntsakin bildu oi da. Oŕela egiten ba'da, ilen gogoak sukaldera gabez pozaren-pozez etortzen dirala esaten dute. Oitura eta sinismen oek ere eneolitos-garai-koak izan bear dute.





VI

EŖOMATZE-ALDIA





Pireneetañak, beren gogolantze bereziarekin, batik-bat sartaldeko Pirenee-mendietan iraun zuten. Aldaketa aundirik gabe luzaroan. Alik eta edesti-garaian lau adreritan urgalduek agertzen zaizkigun arte. Lau adreri oiek baskonak, barduloak, karistioak eta autrigonak ziran. Eta atzenik, danak batera, euskaldunen izena artu zuten.

Eneolitos-aldia ezkerro Euskadi'n eñaldaketarik izan dan azteñenik ez da oraindño azaldu.

Ibertañak, pireneetañen alboan egon ziran. Ez zioten, ordea, egoaldetik Ebro'ko ibar-zelaiari gañez egin. J. K. aurreko III gizaldi inguruan goiko Aragoi'n Prantzi-aldetik sartuak izan bear zuten (*jacetani*). Sartaldetik beñiz Santander'ko luñetan eta Asturias'ko sortaldean (*kantabri*) egon ziran. NE. aldetik Akitania beretu zuten. Baño lenagotik Akitania'n zegon eusko-gogolantzea ez zan oregatik erabat galdu. Ango toki askoren euskal-izenetan iraunerazi zion bere kutsuari. Eta geroago *gaskoin* izenagaz beñiro azaldu zan.

Keltak J. K. baño 600 urtez lenago Ořeaga'tik igaro ziran. Euskaleria'n gelditu gabe joan ziran nunbait: beren izkuntzaz usandutako toki-izenik ez bait-da Euskadi'ren ba'runaldean. Geienaz ere gudarako toki egokien batzuek berenduko zituzten. Au da beintzat gure ustea. Eta naiz Etxauri'n arkitutako kelta-aztarnak, naiz *Uxama Barca* (Osma, Valdegobia), *Deobriga* (Puentela'ra) eta beste kelta-antzeko uri-izenak orixe-edo adierazten digute. Kelta-sail bat (*berones*) E'rioja'n, Kameronos-eta Kantauri-mendien bitartean, gelditu zan. Beren uriak, Ptolomeo'k dionez, *Varea* (Varia, Logro'no'tik bertan), *Tritium Metallum* (Tritio, Najera-aldean) eta *Oliva* (Leiva, Haro'tik N W. aldera) ziran. Gazteiz' inguruko *Kutzemendi* eta *Salbatierabide*'n azaldu izan diran kelta-kutsuak, E'rioja eroso egon-ta, an-dik sortuak izan zitezkean.

\* \* \*

*Baskonak* oraingo Napar-lu'etan, gutxi gora-bera, bizi ziran. Berenak zituzten *Oearso* (uri eta mu'no), itxuraz oraingo Oiartzun; *Vasconum saltus* (Oiartzun, Irun eta Onda'abi dauden sakana, oraindik napar-izketa egiten dan tokia); *Aracelum* (Arakil); *Alantone* (Atondo?); *Pompailon* (Iru'na); *Iturisa* (Aurizpe'ri-inguruan); *Summum Pyreneum* (Iba'ñeta'tik

N. W. aldera); *Andelus* (Andion); *Tarraga* (Lañaga); *Cascantum* (Kaskante); *Cara* (Santakara); *Mouskaria* (Tudela); *Ergavica* (Milagro?); *Iluberritani* (Ilubeñi edo Lumbier'tañak?); *Setia* (Egea); *Alavona* (Alagon); *Bitouris* (Etxauri'ko aran-zelaiian dagon Bidauñeta?); *Cournonicum* (Oya de Cornava, Los Arcos'tik bertan); *Graccurris*, lenago *Ilurcis* (Araziel, Koreñalaldean) eta *Calagurris* (Kalahoña). Berena zan Jaka ere, Ptolomeo'k dionez.

\* \* \*

*Barduloak* baskonen sartaldetik zeuden, eta ia Gipuzko guztia eta Araba-alderdi bat berenak ziztuzten. Barduloen uriak ziran *Gebala*, *Gabalaika*, *Menoska*, *Tabouka* eta *Vesperies*, zein tokitan zeuden garbi ez dakigu baño. Baita berenak ziran *Tritium* *Tuboricum* (Motriko), *Tullonium* (Alegi Dulanzi'ko) eta *Alba* (Araya-inguruko *Abaiz* edo *Albeniz*).

Barduloen egoaldiko muga Kantauri-mendia zan, gure ustez.

\* \* \*

Karistioak barduloen sartaldetik zuten beren lurraldea.

Bi adreri oien mugak, Deba-ibai eta ibañean gorra zijoazen; gutxi-gora-bera orain giputz-izkuntza

eta bizkaiera banakatzen diran leñoan. Gorago be-  
ñiz Arlaban'go lepotik, Gazteiz'ko landan zear,  
Trebiño-mendietaraño iristen ziran. Karistioen sar-  
taldeko mugak Nerbion-ibaia, Orduña'ko aitza eta  
Arkamo-mendia zirala dizkiegu. Eta egoaldekoak  
beñiz Miranda'ren ipaíaldetik Trebiño'ra zijoazela  
uste degu.

Karistioen uriak ziran *Suessatio* (Armentia? Sal-  
batieñabide? Zuazo?), *Beleia* (Iruña?) eta *Toullika*  
(Tuyo?).

\* \* \*

*Autrigonak* karistioetatik sartalderuntz zabal-  
duak zeuden, batez ere Enkartazioeta'ko luñetan  
eta Mena-, Losa- eta Gobi aranetan.

Beren uriak ziran *Uxama Barca* (Osma) eta *Deo-  
briga* (Puentelaña? Kabriana?).

\* \* \*

Beste eusko-eñialde aundietako bat Akitania  
zan. J. K. baño 600 urtez lenagotik asi-ta, añezkero  
iber'tařen mendean egon ba-zan ere, ez zuan bere  
euska-kutsua galdu. Euskal-oiturak eta izkera be-  
nepein toki askotan galdu gabe zaitu zituan.

\* \* \*

España'n eta Galie'tan éromataiak beren zabal-  
ketai ekin zioten ezkerro, Eusko-pirene'en inguru-  
maiak bereala lateldunen bizikerara biurtzen asi  
ziran.

Éromataren izkuntz eta gogolantzeak omen  
aundia artu zuten aien artean, eta Euskadi'ko luál-  
derik agirienetan ere zerbait baéatu ziran.

Zabalkunde onetarako guztiz egokiak gertatu  
zitzaizkiten éromatai berak Euskaleña'n ebakita-  
to bideak; batez ere, Araba, Napaño eta Akitania'n  
zear, Astorga'tik Burdigal'era zijoana beintzat.

Bide onetan zeuden *Deobriga, Beleia, Suessatio,*  
*Tullonium, Alba, Aracelum, Alantone, Pompailon, Ituri-*  
*ssa eta Summum Pyreneum.* Uri eta toki oietan eta  
bitarteko luéetan éromataren eta beren gogolan-  
tzearen oarkun edo ezagungañi aldintsuak agertu  
izan dira.

Kabriana'n (anziñako Deobriga'n alegia, edo  
ufutigabe), Cean Bermúdez'ek dionez, éromataí  
etxe bat arkitua izan zan. Lurgaiñak mosaikoz egi-  
ñak zeuzkan, lau urte-aroen irudiz edertuak eta  
gerka-leño zuriz, naiz beltzez, berdez, oriz eta go-  
ríz apainduak. Baita kristal-margotuz egindako Dia-  
na jainkoizun eiztariaren irudi bat ere antxe zegon.  
Gañera urak artzeko ezkotegi edo ańaskak, Traja-  
no eta Konstantino'ren zizak, arzabal-idatziak,

idazkunak, pilarak, ilobiak eta Ninfai eskiñitako opañi bat (¹).

Iruña'ko muñoan, ustez anziñan *Beleia* egon zan toki artan ere aztarna ugari eta benetakoak azaldu dira, batik-bat beintzat mosaiko eta arzabal-ida-tziak, Augusto'ren zizak, skulptura eta architectu-razko zenbait zati, aresiak, etxe-ormak eta Zadoña-gañean dauden bi arzubiak (55 eta 56 i.). Oñelako-xe aztarnak azaldu dira Armentia'n eta Salbatieña-diden ere: *Suessatio* egon zan tokian alegia, zenbai-tek uste duanez benepeiñ. Albeniz'en ere (*Alba* inguruan noski) ba-ziran eñomatañen ezagungañiak. Napaño'ko Iruña'n beñiz mosaikoak, itxas-zaldi eta ezpatalarien irudiz apainduak; gañera *Ceres* jainkoi-zunaren irudia, *Juno* jainkearen buru bat eta *Mer-kurio*'ren iruditxo bat, danak tupikizkoak; opañi bat, ilañi bat, Adriano kaisar'en zizak, eta abar (²).

\* \* \*

Astorga'tik Burdigal'erako bidean ez ezik, bes-te eusko-alderdi geiagotan ere eñomatar gogolan-tzearen oroigaiak agertu izan dira, batik-bat Ara-

---

(¹) Opañi au oso txikia da, eta orain 8 urte dala Gazteiz'ko Ajuria'ta-ñen etxean ikusi nuan,

(²) Julio Altadill: *De re geographico-historica. Vias y vestigios roma-nos en Navarra* («Homenaje a D. Carmelo de Echegaray». San Sebastian, 1928).

ba'n, Napaño'an eta ipa'aldeko Euskadi'n. Ona emen toki oietako batzuen izenak: Basabe'ko Urbina, Arzeniega, Foronda, Dulanzi'ko Alegi, Arkaya, Kontrasta, Angostina eta Laguardia Araba'n; Marañon, Mues, Gastiain, Barbarin, Añoniz, Andion, Santakara, Erokaforte eta Liedena, Napaño'an; Gordexola, Morga eta Forua, Bizkaia'n; Oiartzun, Gipuzkoa'n; Hasparne, Ataíratze eta Eskot, ipa'aldeko Euskadi'n.

\* \* \*

Arkeologizko ondokiñak adierazten digutenez, eromatar gogolantzeak Euskaleñi'ko landa eta lurralde agirietan indar aundia artu zuan, bideak ebakiaz eta egipenak ugalduez, batez ere ituñiak, urbideak, urberotegi edo termak, ilobiak, txadonak, etxe eta erti-lanak. Gauza oek lenengo eunkitik laugañeraño jaso ziran.

Aipa ditugun toki aietako batzuek gaur baztañuts eta bakartegiak baño ez dira. Eta bertan gaurdaño iraun duten anziñ-atalak eromatañen garaian etxebilduzko uri batzuek emen ere ba'zirala darakuste. Itxura ortan ageri dira beintzat Kabriana, Araba'ko Iruña, Salbatieñabide, Napaño'ko Iruña eta beste.

\* \* \*

*Uskurtza.*-Eromataren ondakin asko idazkunez eta irudiz jantzitako ilen arzabalak eta opañiak izan oi dira. Sañitan eguzki eta ilargiaren irudiak darabiltzkite. Eguzki- eta ilargi-mitho'ak orduko eusko-sinismenetan zer-ikusi aundia izan nunbait. Eta gaurko etnografi edo eñjakintzan argitzen zaizkigun zenbait antziñatikako aztarnak ere berau adierazten digute (57 i.).

Ildakoen gogoak jainkoizunak ziran, orduan uste zanez. Oregatik opalitz asko ildakoen gogoai (*diis manibus*) eskiñiak daude.

Baita edozein eñi-multxo, muño edo toki ere jainkotzat artu oi-zan eta jainko bezela gurtzen zan. Hasparne eta Kabriana oñela gurtuak izan ziran, bertako idazkunak diotenez.

Emengo idazkunetan eromatar jainkoizunak iñoiz aipatzen dira. Ona emen batzuen izenak: *Tutela* (Araba'ko Iruña'n), *Ninfa* (Kabriana'n eta Araya'n) eta *Marte* (Napaño'ko Iruña'n).

Eromataren skulptu-lanetan gogoangañiak dira Iruña'ko Konptos-erakustokian dauden *Juno*'ren burua eta *Ceres*, *Merkurio* eta Larunbe'ko *Venus*'en soñ-irudiak.

Emen bertako jainkoizun batzuen ezaupideak ere ba'ditugu. Euskal-jainkoizunak ziran Laguardia'ko *Useae* jainkeak, Kabriana'ko *Uvarna*, Artze-



niega'ko *Sandao Vim... mburo*, Alegi Dulanzi'ko *Tullonio*, Angostina'ko *Baelisto*, Barbarin'go *Stelatise*, Oiartzun *Aebelteso* (?) edo *Ulbelteson* eta Aranhe'ko *Herauscorritsebe* (?)

Jainkoizun oietako bakoitzaren egitekorik ez dakigu. Ezta eromatar jainkoizunak berak ere, euskal-adimenetara sartzean, zer ikur artzen zuten.

Ustezko izaki oien ugaritasun eta ezberdintasunak berak, eta oietako batzuek erbesteetan duten ikurpenak eta gure artean oraindik dauzkagun ordutitako ipui eta sinismenak, ordea, naikoa erakusten digute urtzi askoren gurgintza zerabilteela gure aurreko euskaldunak.

Gañera gaudiko inda'ak jainkotzat zeuzkaten, eta gauza guztiak gogodunak zirala uste zuten.

Erromatarren aldiko uskurtz-aztarna asko arkitzen dira oraingo kristau-eliz eta baselizetan. Esan liteke ziñeskeen txadon-gañetan egiñak daudela. Oñela dira Morga'ko Doneztebe, Forua'ko Martin deuna, Kabriana, Basabe'ko Urbina, Irzio'ko Donepale, Luzkando, Uralde'ko Andre Mari (Kutxo'tik bertan), Pangua'ko Gines deuna, Assa'ko Andra Mari, Laguardia'ko Engrazi deuna, Iruña'ko Done-la, Astegieta'ko Martin deuna, Margarita'ko Tomas deuna, Atxa'ko Mikel deuna (Gobeo'n), Foronda'ko Martin deuna, Armentiakoko Ande' deuna, Okariz'

ko Mikel deuna, Eíroman deuna, Albeniz'ko Andra Mari, Araya'ko Kepa deuna, Arzanegi'ko Andra Mari (Ilarduia'n), Angostina'ko Bartolome deuna, Gastiain'go Donosti, Elizmendi'ko Andra Mari (Kontrasta'n), Aíroniz'ko Mikel deuna, Martin deuná'ren baseliza (Iruña'tik bertan), Bilaba'ko Irutasuna, Eslaba'ko Kutze deuna, Galipienzo'ko Doniban, Andion'go Andra Mari, Andreaíiaga'ko Andra Mari (Oiartzun'en), Aranhe'ko Madalen deuna, Hasparne'ko eliza eta beste eliz eta baseliz asko.

Euskaleíi'ko txadon eta basatxauno geienak Leen-elizan oi ziran deikun edo izenak dituzte. Oíregatik txadon-aldaketa au kristau-aldiaren aurreneko eunkietan jaso zala uste degu.



## EUSKO-EDESTIAURÉ'KO GAIA DARABILKITEN IDAZTIAK

---

Aguirre (Andrés de) - *Tres nuevos dólmenes en Alava* (Euskal-Erriaren alde'n, 1919'garengo Azaroa'n).

Apráiz (Julián) - *Los dólmenes alaveses* (Euskal-Erria'n, XXVII i., 431 or.; XXXIV i., 43 or.; XXXIV i., 187 or.; XLIV i., 16 or.); *Discurso acerca de los dólmenes alaveses* (San Sebastián, 1905).

Aranzadi (Telesforo de) - *Los gentiles del Aralar* (Bilbao, 1919); *Síntesis métrica de cráneos vascos* (Riev'en, XIII i., 1-337 or.); *Cráneos de Guipúzcoa* (Asociación Española para el Progreso de las Ciencias. Congreso de Madrid).

Aranzadi y Ansoleaga - *Exploración de cinco dólmenes del Aralar* (Pamplona, 1915); *Exploración de catorce dólmenes del Aralar* (Pamplona, 1918).

Aranzadi, Barandiarán y Eguren - *Exploración de nueve dólmenes del Aralar guipuzcoano* (San Sebastián, 1919); *Exploración de seis dólmenes de Aizkoñi* (San Sebastián, 1919); *Exploración de siete dólmenes de Atáun-Borunda* (San Sebastián, 1920); *Exploración de ocho dólmenes de Altzania* (San Sebastián, 1921); *Los nuevos dólmenes de la sierra de Encia* (San Sebastián, 1922); *Exploración de diez y seis dólmenes de Elosua-Plazentzia* (San Sebastián, 1922); *Exploración de seis dólmenes de Urbasa* (San Sebastián, 1922); *Grutas artificiales de Alava* (San Sebastián, 1923); *Exploración de cuatro dólmenes de Belabieta* (San Sebastián, 1923); *Exploraciones de cueva de Santimamiñe I y II* (Bilbao, 1925 y 1931).

Aranzadi y Barandiarán - *Exploración de ocho dólmenes de la sierra de Aralar* (San Sebastián, 1924); *Exploraciones prehistóricas en Guipúzcoa los años 1924 a 1927: Cavernas de Ermitia, Arbil y Olatzaspí, dolmen de Basagañ (Murumendi) y caverna de Irurixo* (San Sebastián, 1928); *Exploración de los dólmenes de Auritz (Burguete) y Aurizpeñi (Espinal)* (gertu-bidean); *Exploración de los dólmenes de Goñiti* (gertu-bidean); *Exploraciones de la cueva de Santimamiñe III* (gertu-bidean); *Exploración de la cueva de Lumentxa* (gertu-bidean); *Exploración del abrigo de Silibranka* (gertu-bidean); *Exploración de la cueva del Polvorin en Carranza* (gertu-bidean); *Exploración de la caverna de Bolinkoba, etc.* (gertu-bidean); *Exploración de la cueva de Urtiaga* (gertu-bidean); *Nuevos hallazgos de arte magdalenense en Vizcaya* (*Anuario de Eusko-Folklore'n*, 1927).

Arnaud Détrouyat - *Notice sur les stations de l'âge de la pierre découvertes jusqu'ici autour de Bayonne* (*Bull. Soc. Sc. et Arts de Bayonne*, (1877-1878).

Bañaibar (Federico de) - *Los dólmenes de Alava* (*Euskal-Erria'n*, II i., 207 or. San Sebastián, 1881).

Barandiarán (José Miguel de) - *Prehistoria vasca. Monumentos del Aralar guipuzcoano* (*Euskal-Erriaren alde'n*, 1916'garengo Uña'n).

*Resumen de la prehistoria del país vasco* (discurso) (Vitoria, 1917); *El arte rupestre en Alava* (Zaragoza, 1920); *La religión des anciens Basques* (Enghien, 1923); *Nuevos monumentos prehistóricos del país vasco* (*Riev'en*, XV, 1924, 239 or.); *Estaciones megalíticas en Navarra* (*Riev'en*, XVII i., 1926, 358 or.); *Las cuevas de Jentiletxêta* (*Anuario de Eusko-Folklore'n*, VII, 1927); *Los dólmenes de Landarbaso* (*Anuario de Eusko-Folklore'n*, 1928, VIII); *Los monumentos prehistóricos* (*Mitología del pueblo vasco'n*, II i., 65-100 or.); *Investigaciones prehistóricas* (*Anuario de Eusko-Folklore'n*, XII, 1932); *Etnología de la Península Ibérica* (*Riev'en*, XXV i., 1934).

Becerro de Bengoa - *Los dólmenes celtas* (*Euskal-Erria'n* III i., 154 or.).

Bosch Gimpera - *El problema etnológico vasco y la Arqueología* (Riev'en, XIV i., 1923, 589 or.); *La prehistoria de los iberos y la etnología vasca* (Riev'en, XVI i., 1925, 492 or.); *Los celtas y el País Vasco* (Riev'en, XXIII i., 1932, 457 or.); *Etnología de la Península Ibérica* (Barcelona, 1932).

Campión (Arturo) - *Orígenes del pueblo euskaldun*. Primera parte. Iruña, 1928.

Comisión de Monumentos de Vizcaya - *Boletín de la...*, correspondiente a los meses de Enero, Febrero y Marzo de 1918. Santimamiñe'ko arzuloa du bere gaia.

Daranatz (J. B.) - *La préhistoire et les recherches préhistoriques au Pays Basque* (*Curiosités du Pays Basque*, Bayona, 1927).

Eguren y Bengoa (Enrique de) - *Estudio antropológico del Pueblo Vasco* (Bilbao, 1914); *El túmulo de Oquina* (San Sebastián, 1923); *Los dólmenes clásicos alaveses. Nuevos dólmenes en la sierra de Entzia* (Riev'en, XVIII i., 1927, 1 or.); *Las cuevas de «La Leze» y de «Los Gentiles»*. El yacimiento de «Allaran» (Riev'en, XX i., 1929, 256 or.); *Nuevas investigaciones prehistóricas en Alava* (*Anuario de Eusko-Folklore'n*, 1927, V i.); *Prehistoria alavesa: dolmen de Lañasoil* (*Anuario de Eusko-Folklore'n*, 1929, IX i.).

Gálvez Cañero - *Nota acerca de las cavernas de Vizcaya* (*Boletín del Instituto Geológico de España*, XXXIII i. Madrid, 1913).

Harlé - *Les grottes d'Aitz-bitarte, ou Landarbaso, à Rentería, près de Saint Sébastien* (*Boletín de la Real Academia de la Historia*, 1908'garengo Joñaila'n, 339 or.).

Iturralde y Suit - *La Prehistoria en Navarra* (Pamplona, 1911).

Passemard (E) - *Industrie de la grotte de Sare* (*Bull. Soc. préh. Franç.* 1912); *Fouilles à Isturitz* (*Bull. Soc. préh. Franç.* 1913); *Les sculptures pariétales de la caverne d'Isturitz* (*Bull. Soc. Franç.* 1918'garengo Uztaila'ren 25); *Un félin sculpté en bois de renne* (*Compte R. Ac. J. et B.-lettre* 1920'garengo Ilbeltz-Otsailean); *Une gravure de lièvre d'Isturitz* (*Bull. Soc. préh. Franç.* 1920'garengo Epaila'n); *L'abri Olha*

(Congrés Ass. Franç. av. des Sciences, 1920); *L'industrie des tourbes de Mouligna* (Bull. Soc. préh. Franç. 1921); *La caverne d'Isturitz* (Rev. Arch. 1921). *Les stations paléolithiques du Pays Basque* (Bayona, 1924).

Pericot y Garcia - *La civilización megalítica catalana y la cultura pirenaica* (Barcelona, 1925).

Ruiz de Azúa (Pedro) - *Sepultura tardenoisense de Axpea* (Madrid, 1918).

Vida Colegial (revista del Colegio de Santa Maria de Vitoria.) - *Culturas pre-romanas del Arenal del Prado* (Vitoria. 1923' gañengo Agoñean, 15 or.).

Z. - M. Lantier y la *Prehistoria vasca* (Riev'en, XVIII i., 1927, 367 or.).

## EGIĒEAREN BESTE IDAZTI BATZUEK

---

Len aipatu ditugunaz gañera, ara emen egīleak argitaratu dituan beste idazti batzuen beñi:

*Contribución al estudio paletnográfico del pueblo vasco.* (Madrid, 1920).

*Paletnografía vasca* (San Sebastián, 1921).

*Breves instrucciones para el investigador folklorista* (Vitoria, 1921).

*Mitología del pueblo vasco* (Vitoria, 1921-1927).

*Mari o el genio de las tormentas* (San Sebastián, 1923).

*Eusko-mitología* (itzaldia) (San Sebastián, 1924).

*Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales* (Vitoria, 1925).

*Apuntes de Geología general y de la del Pais Vasco* (Vitoria 1932).


*Breve historia del hombre primitivo* (Vitoria, 1933).

*Anuario de Eusko-Folklore*, egīlearen zuzenbidez *Laboratorio de Etnología de Eusko-Ikaskuntza'k* argitaratzen du. Amairu idazti atereak dira.

**Ikusgaiak**








10 irudia.-Mauer'en arkitutako matrail-  
ezuía (Homo Heidelbergensis)




28 irudia.-Zaldi irudizko bi idantzezki ditun ematite-zatia. Lumentxa (Lekeitio) leizezulo magdaleine aldiko mañatik datorkigu



32 irudia.-Santimamiñe leizezuloaren  
sarbidea




34 irudia.-Anboto mendiaren tontora. Mitologiak dionez Mari' ren bizitoki  
diran leizezuloen sarbideak + ikuñen azpian ageri dira




40 irudia.-Santimamiñe'ko lufontzi puskak



48 irudia.-Kützemendi edo Olarizu'ko gaztelua (Gazteiz inguruan)




50 irudia.-Iru eguzkibelar Mendiola'ko (Araba) etxe batek ate gañean iltzez erantsiak dauzka. Aite txarak, sorgiñak eta oñaztariak ez dirala inguratzen belar edo lora oiek dauden etxera, esan oi da




51 irudia.-Doniban egunean etxe aurreko ate-alboak lizarradañez, elorri zuriz eta ezpataz apaindu oi dira toki askotan. Atalondoa, beriz, ezpataz, miluz, doniban-loraz eta beste. Ara emen Ataun'go *Perune-zara* izena duan etxe-ko ate bat





55 irudia.-Iruña'ko (Araba) muñoa Hallstatt-aldi ondoren muño oren gañean  
erri bat zegoen. Geroago, beriz, eromataren gudari-toki bat. Orduko bere izena,  
batzuek diotenez, *Beleia* zan



56 irudia.-Iruña'ko eromataren etxe-orma batzuek



57 irudia.-Santakara'ko ilāria  
(Altadil'dar J.'k arg.)



# ZABALKUNDEA SORTA

BALDINTZAK:

IRU IĻABETERO BI LIBURU. URTEAN  
1000 OĪIALDETIK GORA.

EGIÑALDI MERKEA: 5 LAURLEKO IRU  
IĻABETEAN.

EGIÑALDI APAINDUA OIALEZ AZA-  
LEZTUA: 10 LAURLEKO IRU IĻABETEAN

IDAZKOLA TA BANAKOLA

Legazpi, 5'gn

Ufutzikiña: 12.910

DONOSTIA

LIT. ALVAREZ IRAOLA; S. SEBASTIAN

~~Sancti 4,50~~ <sup>10</sup>